

JESU-KRISTOREN

— BIZITZEA —

EDO

EBANJELIO TTIPIA

P. LAFITTE APHEZAK
ARGITARAT EMANA, BEHAR
DEN BAIMENAREKIN

—
IMPR. « LA PRESSE »
ALLÉES PAULMY
— BAYONNE —
—

ATV
9458



M-13810

R-37629

57V
9.458

JESU-KRISTOREN BIZITZEA

edo

EBANJELIO TTIPIA

(Bigarren ager-aldia)

P. LAFITTE Aphezak
argitarat emana,
behar den Baimenarekin



“LE LIVRE” liburutegian salgei:

9, Rue Thiers, 9
BAYONNE



OHARPENA

Liburu chume hunek erraiten dautzue nola bizi izan den Jesu-Kristo gure Jauna, eta zer irakatsi duen.

Ez ditu chehetasun guziak ekhartzen : beharren-beharrenak bakharririk, baina hek Ebanjeliotik hitzez-hitz hartuak.

Liburu-egilearen lana hauche izan da : Ebanjelio-zathiak hautatu ditu, elgarri jarraikarazi, eskuaraz eman, bere burutarik deusik eratchiki gabe.

Aphez hainitz grignatuak ziren, ez baitzezoketen fitsik eskain Katichimako haurreri, ez eta Jesusen bizitza pochi bat bederen ezagutu nahi zuketeneri.

Heientzat egina dugu entsegu chume hau.

Agian, labur bada labur, gogo hainitz argituko ditu, eta bihotz hainitz berotuko. Jesu-Kristo gure Jauna bethi gořetsiago eta maithatuago izan dadin Eskualdunen artean.

P. LAFITTE.

JESU - KRISTOREN

— BIZITZEA —



JESUSEN BIZITZE GORDEA

1. — Aingeruaren agurra

Herodes Judeako errege zelarik, Jainkoak Gabriel aingerua Galileako herri batetarat igorri zuen. Herriak Nazareth zuen izena. Bazen hor Maria erraiten zioten birjina bat, Josep deitu Dabiden etchetikako gizon bati ezkontzaz hitz-eman. Haren aitzinerat agerturik, aingeruak erran zion : « *Agur, graziaz bethea, Jauna da zurekin ; benedikatua zira emazte guzien artean.* »

Hitz horiek aditurik, Maria lotsatu zen ; gogoetatua zagon, zer zitaken bada agur

hori. Aingeruak erran zion : « Etzitela izi, Maria : Jainkoaren aitzinean esker atche-man duzu ; amatuko zira, izanen duzu seme bat eta emanen diozu izena Jesus. Izanen da handi eta erranen diote Jaun-Goikoaren semea. Jainko Jaunak emanen dio Dabid bere aitaren errege-alkhia ; bethierekotz Jakobek utzi ondokoan errege jarriko da eta haren erregetasunak ez duke akabantzarik. »

Mariak aingeruari : « Nola ditake hori ? Ez dut eta gizonik ezagutzen ! » Aingeruak ihardetsi zion : « Izpiritu Saindua zure baitharat jautsiko da eta Jaun Goikoaren indarrak zure gainera hedatuko du bere itzala. Horra zendako zure ganik sortuko den fruitu saindua Jainkoaren Semea deituko duten. Elizabet, zure kusiak ere semea beharra du bere zaharrean. Jainkoak egin ez dezakenik ez da. » Mariak erran zuen orduan : « *Huna Jaunaren neskoa; egin bekit zure hitzaren arabera.* » Eta Aingerua joan zen.

2. — Maria eta Elizabeth

Zonbait egunen buruan bideari eman zen Maria mendiz-mendi; eta Zakariasen etchean sarturik, Elizabethi agur egin zion.

Elizabethek Mariaren agurra entzun orduko, haurra jauzi zitzaion sabelean, eta Izpiritu Sainduaz bethe zen Elizabeth; eta gora-gora hasi zen Mariari buruz : « *Benedikatua zira emaztekien artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua*. Ezen zure agurra entzun dutaneko, haurra bozkarioz jauzi zait sabelean. Dohatsu zu, zeren sinetsi duzun. Bai, Jaunaren izenean erran izan zaizkitzunak oro gertatuko zaizkitzu. »

Mariak orduan erran zuen : « Nere ari-
« mak Jauna goresten du, eta gogoa boz-
« kaioz jauzten zait nere Jainko Salbatzai-
« lea baithan, zeren begiratu baitio bere
« sehiaren aphaltasunari. Huna non men-
« deren-mendetan gizonak dohatsu deituko
« nuten, nere baithan gauza handiak egin
« dituelakotz Bothere guzia duenak.

« Saindua da haren izena eta haren urri-
« kalmendua urthez-urthe hedatzen da
« beldur zaizkon guzietarat. Erakutsi du
« bere besoaren indarra; erhautsi ditu
« gogo-bihotzez beren buruen edertzerat
« ari zirenak; beren tronuetarik aurdiki
« ditu ahaldunak, bai eta chumeak igan-
« arazi. Behar gorrian zirenak ontasunez
« gainditu eta aberatsak eskuak hutsik
« igorri. Israel, bere zerbitzariaz artha
« hartu izan du. Orhoitu baita bere urri-
« kalmenduaz eta nola bere hitza eman izan
« zioten gure Aiteri, Abraham eta haren
« ondckoeri bethikotz ! »

Maria hiru ilabetheren heima egon zen Elizabethekin; eta gero etcherat itzuli.

3. — **Bethlehem**

Orduan Augusto Zesar imperadorearen manu bat agertu zen : baizik-eta aurkhintzetako jende guzien izenak behar zirela hartu; eta nor bere herrirat bazoazin guziak, beren izenaren emaitako.

Josep Dabiden ethorkitik baitzen, Bethelemerat joan zen bere izenaren emaiterat, Maria bere esposarekin batean. Hor zirelarik, Mariak ukhan zuen bere seme bakharra, chatharrez inguratu zuen eta aska batean etzanik ezarri, ostalerek lekhurik ez izanez heientzat.

Ingurumenean bada artzain batzu bazauden beren arthaldeen zain. Bet-betan aingeru bat agertu zitzaioten eta zerutikako argi batek inguratu zituen, izitu baitziren ez guti. Bainan Aingeruak erran zioten : « Ez izan beldurrik ! Bozkariozko berri bat ekhartzen dautzuet, gizon guziak bozkariatzekoa : gaur, Dabiden hirian, Salbatzaile bat sortu zaitzue : hura da Kristo-Jauna. Huna zertarik ezagutuko duzuen : aurkhituko duzue haur bat chatharrez inguratua eta aska batean etzana. »

Ordu berean aingeru andana bat agertu zen eta denak betan hasi zitzaizkon Jainkoari laudorioz, erranez : « *Loria Jainkoari zeru gorenean eta bakhe lurrean nahioneko gizoneri !* »

Aingeruak zeru-alde itzali zirenean, artzainek erran zuten elgarri : « Goazen Bethlehemerat, ikhus dezagun Jaunak ezagutarazi daukun gertakaria. » Joan ziren beraz lehiatuki eta aurkhitu zituzten Maria, eta Josep eta Haurra askan etzana. Ezagutu zuten egiak zirela Haur hortaz erran ziozkatena oro ; eta mendiratekoan Jainkoa goretsi zuten, ikusi eta entzun zituzten gauza ederren gatik.

4. — Legearen arabera

Zortzigarren egunean, Haurra ebakitu zuten eta Jesus eman zioten izena, Aingeruak aitzinetik galdegin bezala.

Haur-ukhan-ondoko Mariaren garbitzeko egunak bethe zirenean, Moisen legearen arabera, Maria eta Josepek Haurra Jerusalemeko tenplorat ekarri zuten, eta han Jaunari eskaini; sakrifizio gisa eman zituzten bi uso-aphal edo bi etche-usokume.

Bazen orduan Jerusalemen Simeon deitu gizon bat. Zuzena zen eta Jainkoaren bel-

durra bazuen. Izpiritu Sainduak ezagutarazi zion etzela hilen, Kristo ikhusi gabe. Izpiritu Sainduak eremanik, templorat joan zen; eta nola bere burhasoek Jesus-Haurra ekhartzen baitzuten legearen bethetzeko, Simeonek hartu zuen besoetarat eta Jainkoa benedikatu zuen, ziolarik : « Orai, Jauna, utzazu bakhean hil dadin zure zerbitzaria ! Zure erranen arabera ikusi dute nere begiek eman daukuzun Salbatzailea, populu guziena aitzinerat igorri duzun Argia, zure Israelgo populuaren ospea ! »

Haurraren aitetamak miretsiak zauden hitz hoik aditzearekin. Simeonek benedikatu zituen eta erran zion Mariari : « Haur hunen gatik Israelen hainitz salbatuko dira, eta hainitz galduko : gizonak asaldaraziko dituen bandera bezala ditake; eta zuhauk, arima ezpata batek alderen-bertze iraganik izanen duzu. »

Legearen arabera, egin beharrak oro bururatu ondoan, Nazaretherat itzuli ziren.

5. — Errege-Magoak

Jesus Bethlehemen sortu zenean, Mago batzu Iguzki-aldetik Jerusalemerat jin ziren, erranez : « Nun da Juduen Errege sortu berria ? Haren izarra ikusi dugu Iguzki-aldean eta adoratzerat heldu gitzaizko ».

Hitz horiek Herodes erregea asaldatu zuten bai eta Jerusaleme guzia harekin batean. Herriko aphez-nausiak eta jakintsunak elgarretarat bildu zituen, ea nehork erranen zion nun sortzekoa zen Kristo. Ihardetsi zioten : « Judako Bethlehemen, Profetak hitz hauk utzi dauzkunaz geroz : Eta hi, Bethlehemen, Judako lurra, ehiz ttipiena Judako hiri handien artean, ezen hire ganik atherako duk Israel, nere populua, bidatu behar duen buruzagia ».

Orduan Herodesek ichilka Magoak jin arazi zituen, erran zezoten zoin egunez agertu zitzaioten delako izarra. Bethlehe-merat igorri zituen gero, ziolarik : « Zoazte, Haur horren berri jakizue ahal bezain ontsa, eta atcheman orduko, niri gaztia zazue, joan nakion ni ere adoratzerat. »

Berehala joan ziren eta Iguzki-aldean ikusi zuten izarra berriz agertu zitzaioten eta zeruan bide-erakusle abiatu. Azkenean Haurra zagon etchearen gainean baratu zen. Izarra ikustearekin heien bozkarioa ! Etchean sartu ziren, Haurra bere Amarekin aurkhitu zuten eta adoratu; gero, beren kutchak idekirik, eskaini ziozkaten urhea, isentsua eta mirra. Bainan ametsetarik mezua izan baitzuten Herodesen ganat ez itzultzeko, bertze bide bat hartu zuten herri alde.

6. — Ihesi

Magoak joan-eta, Jaunaren Aingerua Josepi agertu zitzaion, lo zagolarik, eta erran zion : « Jeiki zite, har-aitzu Ama-Semeak, zoazi ihesi Egyptorat eta zaude han, nik erran artio; ezen Herodesek Haurra bilhatuko du, hil-arazi beharrez. » Josep jeiki zen eta gau hartan berean, Haurra eta haren Ama harturik, Egyptoari buruz abiatu.

Herodes, ikusirik Magoek jokatu zutela, biziki hasarretu zen eta hil-arazi zituen

Bethlehemeko eta inguru hetako haur ttipi guziak, bai bi urthetakoak, bai adin hortaz azpikoak. Orduan zen bethe Jeremias profetak aitzinetik errana: « Boz bat entzun dute Rama delako herrian. Zonbat auhen eta marraska! Rachel nigarrez dago, bere haurren gatik; eta ez du elhe onik ere entzun nahi, galdu dituelakotz. »

Herodes hil zenean, Jaunaren Aingeru bat ametsetarik agertu zitzaion Josepi eta erran zion: « Jeiki zite, har aitzu Ama-Semeak eta zoazi Israelgo lurrerat: engoitik Haurraren biziari aiher zitzaizkonak hilak dira. » Jeikirik, Josepek Haurra eta haren Ama hartu zituen eta joan zen Nazarethen egciterat.

7. — Jesus hamabi urthetan

Bizkitartean Haurra ari zen handitzen eta hazkartzen, zuhurtziaz betherik, eta Jainkoaren grazia haren baithan zen. Burhasoak urthe guziez Jerusamelerat joaiten zitzaizkon, Bazkoen egiterat. Hamabi urthe zituelarik, hiruak Jerusamelerat igan

baitziren eta, pesta bururatu ondoan, etche alde baitzoazin Aitetamak, Haurra Jerusalemen egon zitzaioten, ohartu gabe. Ustez-eta lagun batzuekin zen, egin zuten egun baten bidea, gero bilhatu zuten ahai-de eta ezagunen artean. Ez baitzuten aurkhitu, haren ondotik itzuli ziren Jerusalemerrat. Hiru egunen buruan tenploan atcheman zuten, irakasleen erdian jarririk, heien entzuten eta heieri chehetasun galdeka ari zela; eta bazterretik jendea harritua zagon haren zuhurtziari.

Amak erran zion : « Haurra, zendako egin daukuzu holakorik ? Zure Aita eta ni bihotzminez zure ondotik ginabiltzan. » Jesusek ihardetsi zion : « Zergatik zinabiltzaten nere bilha ? Etzinakiten bada nere Aitari, doazkon gauzetan behar nize-la ? »

Heiekin itzuli zen Nazaretherat *eta heien nahi guziak egiten zituen*; eta hola aitzinatuz zcan, zuhurtzian, adinean eta grazian Jainkoaren eta gizonen begietan.

JESUSEN BIZITZE AGERIA

LEHEN URTHEA

8. — **Bathaioa**

Egun hetan, Jesus Nazarethetik jin zen eta Joanesek bathaiatu zuen Jordaneko uretan. Uretik atheratzera zoalarik, Zerua zabaldu zen eta Izpiritu Saindua haren gainerat jautsi uso baten idurian. Eta zerutik hitz hauk aditu zituzten : « *Hau da nere Seme guziz maitea, haren baithan dut nik nere gozoa.* » Orduan Jesusek hogoita hamar urthe zituzken eta denek uste zuten Josepen semea zela.

9. — **Hiru tentamenduak**

Hortik Izpirituak morturat ereman zuen, debruak tenta zezan. Berrogoi gauegunez barur egonik, gosetu zen.

Tentatzailea hurbildu zitzaion, erranez : « Jainkoaren Semea balinbazira, errozute

harri hauieri ogi bilhaka diten. » Jesusek ihardetsi zion : « Izkiriatura da : *gizona ez da bakharrik ogiz bizi, bainan Jainkoaren ahotik atheratzen den hitz oroz.* »

Orduan debruak ereman zuen hiri saindurat, han eman zuen temploaren gaingainean, eta erran zion : Jainkoaren Semea balinbazira, aurdik-azu zure burua. Ezen izkiriatura da : bere Aingerueri arthamendatu zitu eta beren eskuetan atchikiko zituzte, beldurrez-eta harri batean behaztopa ziten. » Jesusek ihardetsi zion : « Bai eta izkiriatura da : *Ez duzu tentatuko zure Jainko Jauna.* »

Debruak ereman zuen berriz mendi gora baten kaskorat. Handik erakutsi ziozkan lurreko erresuma guziak eta erran zion : « Horiek oro emanen dauzkitzut, ahuspez adoratzen banuzu. » Orduan Jesusek : « Hoakit hortik, Satan; izkiriatura baita : « *Adoratuko duzu zure Jainko Jauna eta ez bertzerik zerbitzatuko.* » Hortan debruak utzi zuen eta Aingeruak zerbitzatzera jin zaizkon .

10. — Jesus ezteietan

Handik hiru egunen buruan, Kana delako herrian eztei batzu izan ziren. Jesusen Ama gomit zen, bai eta Jesus ere bere dizipuluekin. Arnoa eskasturik, Jesusen Amak erran zion : « Arnorik ez dute. » Jesusek ihardetsi zion : « Ez da oraino jin nere orena. » Amak erran zioten halere sehieri : « Egizue horrek erranen dautzue-na. »

Baziren sei untzi harrizko, bizpahiruna metreta zaukatenak . Jesusek erran zioten : « Urez bethe zaitzue untzi horiek. » Eta bethe-betheak eman zituzten. Jesusek orduan manatu zioten : « Har hortik orai, eta emozue mahaineko buruzagiari. » Hala egin zuten.

Hunek ura arno bilhakatua jastatu zueneko, ezpaitzakien nundik ekarria zuten arno hori, jaun esposa deitu zuen eta erran zion : « Denek arno ona emaiten dute lehenik, tcharragoa aldiz bazkaltiarrek ontsa edan dutenean : bainan zuk arnorik

hoberena oraikotz begiratu duzu. »

Jesusek Galilean, Kana delako hirian, egin zuen lehenbiziko mirakulu hori. Erakutsi zuen bere ahal miresgarria eta dizipuluek haren baithan sinetsi zuten.

11. — Ithurri bazterrean

Jesus ethorri zen Samariako hiri, Sikem deitzen den baterat, Jakobek bere seme Josepi eman izan zion lurrari hurbil. Han zen Jakoberen ithurria, eta Jesus, bidean nekhatuak, jarri zen ithurri haren ondoan.

Samariar emazteki bat urketa ethorri zen eta Jesusek erran zion : « Emadazu edaterat. » Samariarsak ihardetsi zion : « Zu, judua ikañki-eta, nolaz galdatzen dautazu edaterat, nizan bezalako Samariar bati ? Juduek alabainan ez dute Samariarrekin atchikitzen. »

Jesusek ihardetsi zion : « Bazinaki Jainkoaren dohaina eta nor den zuri edaterat galdatzen dautzuna, zu hasiko zinaizkon

menturaz edari-galdez, eta emanen zautzun ur bizi batetarik edaterat. » Emaztekiak berriz : « Jauna, putzu hau barna da, eta ez duzu zertaz ura athera ere; mundik zinuke beraz ur bizia ? »

Jesusek erran zion : « Nork ere edatei baitu ithurri huntarik, berriz ere egarrituko da; baina nik eman uretik ari dena ez da gehiago egarrituko; emanen diotan ura bilhakatuko da ithurri bat, bethiereko bitzzeraino joko duena. » Emaztekiak berehala : « Jauna, emadazu ur hartarik, ez nadin gehiago egarri, ez eta hunat urketa ethor. »

Jesusek ihardetsi zion : « Zoazi, zure senharraren bilha eta zathozte hunat. » Emazteak aldiz : « Ez dut senharririk ». Jesusek erran zion : « Egia diozu, senharririk ez duzula; izan ditutzu bortz senhar, eta orai duzuna ez duzu zurea. Hortan egia diozu. » Emaztekiak erran zion : « Jauna, ikusten dut profeta zirela, zu. Baina gure arbasoak mendi hunen gainean ari izan direlarik Jainkoaren adoratzeko, zuek diozue Jeru-

salemen behar dela adonatu. » Jesusek ihardoki zuen : « Emaztekoa, sinets nezazu: hurbildua da eguna, non ez baituzu nere Aita adonatu, ez mendi huntan, ez eta Jerusalem. Gaurgero egiazko adonatzaleek izpirituz eta zinez adonatu dute nere Aita. Nere Aitak alabainan hola adonatzaleak nahi ditu. Jainkoa izpiritu da eta nahi du izpirituz eta zinez adonatu izan. »

Emaztekiak ihardetsi zion : « Badakit Mesias orai jitekoa dela: ninen delarik orotaz argituko gihu. » Jesusek erran zion : « *Mesias hura, ni niz, mintzo nitzaitzun ber-bera.* » Orduan emaztekoa, pegarra hor utzirik, hirirat joan zen, orori ziolarik : « Zathozte, ikusiko duzue nere bekatuak erran dauzkitan gizon bat. Nago ez othe den Kristo. »

Haren ganat bildu ziren eta heien artean bi egun ereman zituen. Askok haren baitan sinetsi zuten eta ari zaizkon Samariar-sari : « Oraikotik ez dugu sinesten bakharrizure erranaren gainean; guhaurrek entzun

dugu eta badakigu hau dela egiazki munduaren Salbatzailea.

12 — Aitzindariaren semea

Kafarnaumen aitzindari batek semea erizuen. Aitzindari horrek, jakinik Jesus Judeatik itzuli zela Galilearat, hari buruz jozuen eta othoizka hasi zitzaion, semearen sendatzerat jiteko, haurra hiltzen ari zela.

Jesusek erran zion : « Ez duzue sinetsi nahi, non ez duzuen mirakulu zerbait ikusten. » Aitzindariak berriz ere : « Jauna, zatho nere semea hil baino lehen. » Jesusek orduan : « Zoazi, semea sendatua duzu. » Sinetsi zuen Jesusek errana, eta etche alde bazoan.

Bidean buruz-buru egin zuen bere sehiekin; hauk heldu zitzaizkon erraiterat haurra osagarritan zuela. Galdegin zioten aitak zer tenorez hobekitu zen eria; eta ihardetsi zuten : « Atzo, zazpi orenetan sukarrak utzi du. »

Aitzindariak ezagutu zuen oren hartan berean ziola Jesusek erran : « Semea sendatua

duzu. » Sineste hartu zuen Jesus baithan, bai eta haren etchekoek ere.

13. — **Lehenbiziko apostoluak**

Jesus Galileako itsas-hegian iragaiten zen batez, bi anaia, Simon-Petri erraten ziotena, eta Andres itsasoan ari ziren sare hedatzen. Arraintzariak ziren. Eta Jesusek erran zioten : « *Jarraik zakizkitet, nik eginen zituztet gizon-arraintzari.* » Berehala sareak hor utzirik jarraiki zitzaizkon. Urrunchago bertze untzi batean bertze bi anaia atche-man zituen : Jakes eta Joani, beren aita Zebede-rekin. Sare antolatzen ari ziren ; deitu zituen eta ordu berean jarraiki zitzaizkon, beren sareak eta beren aita hor utzirik.

Jesus bazabilan Galilean gaindi, sinagogetan irakusten, Ebanjelioa predikatzen, edozoin gaitz ala eritasun sendatzen.

14. — **Arraintza miresgarria**

Egun batez, erran dugun itsas-hegi hortan berean, Jesusek bi untzi ikusi zituen,

biak baratuak. Arraintzariak jautsiak ziren eta beren sareak garbitzen zituzten Igan zen beraz untzi hetarik batetarat. Simone-na baitzen, huni erran zion : « Zoazte itsasoan aitzinago eta aurdik sareak arrain biltzeko. » Simonek ihardetsi zion : « Jauna, gau guzian ari izan gira, fitsik hartu gabe; baiman zure hitzari nago, sarea aurdikiko dut. » Hala eginik, halako arrain-keta atcheman zuten, non sarea hausten baitzitzaioten. Bertze untziko laguneri keinu egin zioten heltzeko. Jin ziren, bi untziak bethe zituzten eta gutik egin zuen ez baitziren urperat sartu.

13. — Paralitikoaren sendatzea

Handik zombait egunen buruan, Jesus itzuli zen Kafarnaumerat eta lau gizonek ekharri zioten paralitiko bat. Oste handia zelakotz, etche-teilatua altchatu zuten eta zilotik jautsarazi eria bere ohean. Jesusek, fede hori ikusirik, erran zion eriarri : « Haurra, barkhatuak zaizkitzu zure bekatuak. »

Bainan hor baitziren eskribau batzu, erraiten zuten beren baithan : « Zer mintzo da gizon hori? Jainkoari laido egiten dio. Nork dezake bekaturik barkha Jainkoak baizik ? » Jesusek bazakien zer zuten gogoan eta ihardoki zioten : « Zendako atchikitzen ditutzue asmu horiek zuen bihotzetan ? Zoin da errechago ala paralitiko bati erraitea : « Bekatuak barkhatuak zaizkitzu », ala erraitea : « Jeiki zite, har zure ohea eta ibil ! *Jakin dezazuen bada gizonaren Semeak bekaturen barkhatzeko eskua duela* : Manatzen dautzut (erran zion paralitikoari) har-azu zure ohea eta zoazi etcherat. » Gizona berehala chutitu zen eta ohea bizkarrean urrundu. Han ziren guziak harrituak zauden eta Jainkoa goresten zuten, erranez : « Holakorik ez dugu behinere ikusi ! »



JESUSEN BIZITZE AGERIA

BIGARREN URTHEA

16. — **Bethsaida**

Bada Jerusalemen Bethsaida deitu urtegi bat Bortz lorio baditu eta heien pean bazen etzanik zer nahi eri, itsu, maingu, alderdi-ihardun, denak ura noiz higituko zen iguri. Ezen Jaunaren Aingerua noizetik-noizerat urtegirat heldu zen. Ura higitzen zuen eta ur hartarat lehenbizikorik jausten zena, edozoin eritasunetarik sendatua zen.

Bazen han gizon bat, hogioita hemezortzi urthe hartan bere gaitzarekin zena. Jesusek erran zion : « Nahi duzu zendatu ? » Eriak aldiz : « Ura higitzen denean, nehor ez dut urtegian sar nezakenik, eta abiatu nizene-ko bertze norbait sartzen da ni baino lehen! » Jesusek manatu zion : « Jeiki zite, har zure ohea, eta zoazi. »

Gizona sendatu zen, eta ohea harturik hasi zen ibiltzen. Larunbata zen. Juduek erran zioten beraz gizonari : « Egun larunbata da. Etzaitzu zilhegi zure ohearen eremaitea » Ihardetsi zuen : « Sendatu naue-nak erran daut : Har-azu zure ohea eta ibilzite. » Galdegin zioten : « Nork erran dautzu holakorik? » Bainan harek etzakien nor zen eta Jesus jenden artetik itsabasitu zen.

Gerochago Jesusek tenploan kausitu zuen eta erran zion : « Sendatua zira. Ez gehiago bekhatu egin, beldurrez-eta areagoko zerbait gertha dakizun. » Gizona joan zen eta Judueri erran zioten Jesusek zuela sendatu; eta Juduek Jesus gaizki ekartzen zuten, larunbatarekin egiten zituelakotz bere mirakuluak.

Jesusek aldiz erraiten ohi zuen : « Bethiari da nere Aita, ni ere bai. » Juduek nahizuten hortako hil-arazi, etzitzaiolakotz aski larunbataren haustea, bainan erranez bere aita Jainkoa zuela, Jainkoa bezenbat egiten zuelakotz bere burua.

17. — Hamabi apostoluak

Jesus mendirat joan zen othoitz-egiterat eta gau guzia othoitzean ereman zuen. Argitu orduko, dizipuluak bildu zituen eta heien artean hamabi hautatu : apostoluak deitu zituen. Hek ziren : Simon, gero Petri izendatu baitzuen, eta Andres haren anaia: Jakes eta Joani, Filipe eta Bartolome, Mathias eta Thomas, Jakes, Alferen semea, eta Simon, Kartsua erraiten baitzioten, Juda, Jakesen anaia, eta Judas, bere Nausia saldu zuena.

Heiekin jautsi zen eta zelhaian baratu : bazen dizipulu andana bat eta zer nahi jende Judeatik, Jerusalemetik, Tyr eta Sidon-eko itsas-bazterretarik jinak ziren, haren entzuteko eta beren gaitzen sendarazteko. Debruduneri debruak kendu zaizkoten eta guziek nahi zuten hunkitu, haren ganik bertute bat atheratzen zelakotz, eritasun guzien sendatzekoa.

18. — **Mendiko hitzaldia**

Halako ostea zela ikusirik, gorachago igan zen, han jarri eta dizipuluak hurbildu zitzaizkon. Jesus irakasten hasi zen, erranez:

« *Dohatsu* gogoz pobre direnak, heiena baita zeruko erresuma. *Dohatsu* ezti direnak lurraren jabe baitazke. *Dohatsu* nigarretan daudenak, bozkariatuko baitira. *Dohatsu* egiazko zuzenaren gose eta egarri direnak, aseko baitira. *Dohatsu* urrikaltzen direnak, berek ere urrikalmendu ardietsiko baitute. *Dohatsu* bihotzez garbi direnak, ikusiko baitute Jainkoa. *Dohatsu* bake-tiarrak, deituko baitira Jainkoaren haurrak. *Dohatsu* zuzenaren gatik zerbait jasaiteko izanen dutenak, zeruko saria baitukete. *Dohatsu* zuek, madarikatuko zituztenean, jazarriko zaizkitzuenean, zer nahi gezur atherako dutenean zuen belzteko nere gatik. Bozkaria zitezte eta alegera, zeren handia izanen baita zeruan zuen saria.

« Ez uste izan legearen eta Profeten kentzerat jina nizela ; ez niz heien kentzerat

jina, bai ordean heien erranen bethetzerat.

« Ez bazirezte Eskribau eta Farisauak baino hobeak, etzirezte sartuko zeruetako erresuman. Badakizue zuen arbasoeri erran izan zaiotela : Ez duzu gizonik hilen, nork ere hilen baitu, hura joko du jujamenduak. Nik erraiten dautzuet : protsimo lagunari hasarretuko zaiona ere joko du jujamenduak.

« Beraz aldarerat ekartzen balinbaduzu eskaintza bat, eta han orhoitzen bazira zure lagunak baduela zerbait erraiteko zuretzat, han utzazu zure eskaintza eta lehenik zoazi zure lagunarekin baketzerat; gero egingen duzu aldarean zure eskaintza.

« Zuen aiteri erran izan zaiote : Ez duzu lohikeriarik *obraz* egingen. Nik erraiten dautzuet : Nork ere behatzen baitio norbaiti *gutizia* lizun batekin, harek ordukotz lohikeria egina du bihotzez.

« Badakizue erran zaharra : Begia begiaren, hortza hortzaren. Nik erraiten dautzuet ez mendekatzeko gaizki egileari. Norbaitek joiten bazitu eskuineko mathelan, bertzea ere para diezozu. Galde-egileri emozute.

Mailegatzerat heldu zaizkitzunak ere onharzkitzu.

« Zaharrek erran dute : Adichkidea maitha-zazu eta higuin etsaia. Nik erraiten dautzuet : *Maitha zure etsaiak*, ongia egin zozute higuin zituzteneri; othoitz egizue belzten eta gaizki bilhatzen zituztenentzat. Hola zeruko Aitaren egiazko semeak izanen zirezte : harek iguzkia onen eta gaichtoen argitzeko jeikarazten du, bai eta uria jautsarazten gizon prestuen nola bertzen gainerat. Alabainan, maite zituztenak maithaturik, zer sari duzu merezi ? Publikanoek ere hori egiten dute. Eta adichkidentzat baizen ez baduzu agurrik, bertzeak baino gehiago othe zira ? Paganok berek ez dutea hori egiten ? Beraz izan zitezte perfet, zuen zeruko Aita perfet den bezala.

« Ez egin ongia gizonen aitzinean, zure burua edertu eta erakutsi beharrez : bertzenaz saririk ez duke zuretzat zeruetan den zure Aitak.

« Amoina egiten duzularik, ezkerrak ez beza jakin zer egiten duen eskuinak, ichilean

egon dadin zure amoina; eta zure Aita gordean ere ikusten duenak ordaina emanen dautzu.

« Othoitz egitean, ez izan itchura eder egileak bezala : laket zaiote hauieri karrika-buru eta sinagogetan chutik othoitz egitea, bertzeak ohartzeko gisa. Egiaz erraiten dautzuet, izana dute beren saria. Zuek othoitz egiten duzuenean, sar zuen gelan; eta, athea hetsirik, gordean egiozue othoitz zuen Aitari ; hunek, egitate gordeenak ere ikusten baititu, saristatuko zituzte.

« Othoitzetan, ez hitzaldi luzerik erran, paganoek bezala : hauiek uste baitute othoitz luzeago eta hobeki izanen direla entzuenak. Zuen Aitak badaki, zuek galdatu baino lehen, zeren beharra duzuen. Huna nola egingen duzuen othoitz :

« *Gure Aita*, zeruetan zaudena. erabil bedi sainduki zure izena ; ethor bedi zure erresuma; egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere : iguzu egun gure eguneko ogia; barkha dietzagutzu gure zorrak, guk gure zordun direneri barkhatzen dioz-

katogun bezala ;ez gitzatzula utz tentamen-
dutan erortzerat : bainan begira gitzatzu
gaizkitik. Hala-biz.

« Erraiten dautzuet bertzalde, zuetarik
biga othoitz egiteko elgarretaratzen badira
lurraren gainean, zer nahi galde-eginik
ere, nere zeruko Aitaren ganik ardietsiko
dutela. Ezen, nun ere bizpahiru baitira
nere izenean bilduak, ni han niz heien er-
dian.

« Nehork ez ditzazke bi nausi zerbitza :
alabainan edo bat izanen du higuin eta
bertzea maite, edo bat sinetsiko du eta ber-
tzea arbuiatuko. Ezin ditzazketzue zerbitza
Jainkoa eta Dirua. Hargatik erraiten dau-
tzuet : ez grigna, bizitzeko zer janen du-
zuen, eta larrua zertaz estaliko duzuen.
Alabainan ez othe da bizia jana baino ge-
hiago ,eta gorputza jauntzia baino ?

« Beha zeruko hegaztineri : ez dute ha-
zirik eraiten, ez uztarik biltzen selharue-
tarat, eta zuen Aita zerukoak hazten ditu.
Zuek ez othe zirezte hainitzez hek baino
gehiagokoak ?

« Hala nola zuen jauntziaz. Beha bazterretako lilieri, nola diren handitzen; ez dira bada ari ez lanean, ez iruten : eta nik erraiten dautzuet, Salomon erregea, bere ospe guziaren erdian, etzela lore horietarik bat bezala jauntzia. Beraz egun pentzean den belhar edo lilia, eta bihar suat aurdikiko dena, Jainkoak hoin ederki jaunzten baliabadu, zenbatenaz hobeki jauntziko zituzte, zuek, oi sineste ttipiko gizonak.

« *Bilha zaitzue beraz lehenik Jainkoaren erresuma eta zuzentasuna, eta bertze on guziak emanen zaizkitzue gainerateko. Ez kecha biharkoaz : egun bakotchak aski du bere grigna.*

« Ez juja, eta etzituzte jujatuko. Ezen bertzeak neurtuko ditutzun neurriaz neurtuko zituztete Zendako ohartzen zaizkio zure anaiak begian duen pitsari, eta ez zuk zurean duzun lazari ? Edo nola erraiten ahal diozu : Utz nezazu, pits bat khen dezazudan begitik ; zuhaurrek laz bat zurean izanki-eta ? Farzuntzia ! Khen-azu lehenik

zure begiko laza; eta gero ariko zitzazko zure anaiari daukan pitsaren khentzen.

« *Galda eta emanen dautzute; bilha, eta atchemanen duzu; jo eta idekiko dautzute athea.* Ezen, galdez dagonak ukaiten du, bilha dabilanak atchemaiten, eta athejoi-leari idekitzen zaio. Zuen artean, semeak ogia galdatzen-eta, nor emanen dio harri bat? Ala arraina galdatzen badu, suge bat? Beraz, baldin-eta zuek, zirezten bezalako gaichtoek, zuen haurreri gauza onak emaiten badiozkatzuete, ez othe diote ongirik eginen zeruko Aitak othoitzean ari zaizko-neri ?

« « Zer ere zuretzat bertzek egitea nahi baitutzu, egizu zuk bertzentzat. Hala dio legeak bai eta Profetek.

« Athe hertsitik sar zite; ezen athe zabalak nola bide handiak galtzerat deramate eta hainitz dira bide-athe hoietan iragai-leak ! Zoin ttipia den aldiz athea, zoin hertsia ere bizirat deraman bidea; eta zoin gutik atchemaiten duten !

« Profeta gaichtoeri ihes egiozue: ardilarruz jauntzirik heldu zaizkitzue, barnez otso harrapari batzu direlarik. Beren fruituetarik ezagutuko ditutzue; elhorrietan ez da mahats-bihirik biltzen, ez eta laparretan pikorik ? Hala, *zuhaitz on guziek udale edo fruitu onak dakartzate, zuhaitz tzar guziek aldiz udale tzarrak.* Zuhaitz onak ez du udale tzarririk emaiten ahal, ez eta tzarrak onik. Beraz onik ekarriko ez duen zuhaitza moztuko dute eta surat aurdikiko. Horra bada nundik ezagutuko dituzuen etsaiak : beren fruituetarik.

« Jauna eta Jauna ! ari zaizkitan jendeak oro ez dira ez sartuko zeruko erresuman ; nere zeruko Aitaren nahia eginen duena, hura bai sartuko da.

« Orai erran dutana aditzen eta egiten duenak iduri du harrokaren gainean bere etchea eraikitzen duen gizon zuhurra. Uria jautsi da, ibaiak jin, haizek eman-ahala eman dute, denak jazarri zaizko etcheari; bainan bethi chutik dago, harri minean eraiki dutelakotz.

« Aldiz, erran dutana aditzen bai, bairan egiten ez duenak, iduri du etchea arean eraiki duen gizon zoroa. Uria jautsi da, ibaiak jin, haizek eman-ahala eman dute, denak jazarri ethecari, eta erori da, eta gaitza izan da haren leherpena. »

Jesusek hitz-aldia bururatu zuenean, oste guzia miretsirik zagon haren erakaspeneri: ezen denak irakasten ziozkaten, hortako esku zuen batek bezala, eta ez Eskribau eta Farisauen arabera.

19. — Kafarnaumeko ehuntaria

Jesus Kafarnaumen sartu zen, handik landa. Ehuntari batek muthil bat bazuen etchen, eri hilhurrana. Biziki maite zuen. Aditurik asko gauza Jesusez, igorri ziozkan zombait judu zahar, othoi sehiaren sendatzerat ethor zakion. Hauk Jesusen ganatu ziren eta dena othoitz hasi zitzaizkon : « Merezi du egin diezozun laguntza hori, gure jendekiarentzat ona baita, eta berak eraiki baitaiku sinagoga. »

Jesus heiekin joan zen, eta eriaren etcherat hurbiltzeari, ehuntariak igorri ziozkan berriz bertze adichkide batzu, erraitera : « Jauna, etzitela neka nere gatik : *ez dut merezi nere etchean sar ziten*. Horra zendako ez nintzen menturatzen nihaur ethortzerat zure bidera. *Bainan hitz bat errazu, eta sendatuko da nere muthila*. Ezen, nik ere, nahiz bertzen peko nizan, baditut soldadoak nere meneko, eta erraiten diot bati : zoazi, eta badoa; eta bertze bati : zato, eta heldu zait. Erraiten diot sehiari : egizu hau, eta egiten daut. »

Jesusek, hitz horiek aditurik, hainitz miretsi zuen eta ondotik zoazkion jenderi buruz itzuli eta, erran zioten : « Egiazki, Israelen ere ez dut kausitu hunen sinestea bezalakorik. » Eta berriz etcheratu zirelarik, sendatua atcheman zuten eri izan zen sehia.

20. — Naimeko alharguntsa

Handik Jesus Naïm delako hirirat joan zen, dizipuluak eta asko jende jarraikitzen

zitzaizkolarik .Hiriko athera hurbiltzen zenean, hil bat bazeramaten ehorzterat : alharguntsa baten seme bakarra; eta ahokuan bazen hiriko hainitz jende.

Ama ikusi orduko, Jesus urrikaldu zitzaion eta erran zion : « Ez nigarririk egin ». Hurbildu zen eta kutcha hunkitu zuen. Karraiatzaleak baratu ziren eta Jesusek oihu egin zuen : « Gizon gaztea, nik erraiten dautzut, jaiki zite. » Eta hila zena jarri zen, eta mintzatzen hasi. Jesusek semea amari eman zion.

Izialdurak hartu zituen han ziren guziak, eta Jainkoa goresten zuten, ziotelarik : « Ala profeta handia agertu baita gure artean ! Jainkoak urrikari izan du bere populua » Phizte horren aiphuak jo zituen Judeako eta inguruetakoko toki guziak.

21. — Madalena

Farisau batek Jesus gomitatu zuen bazkari-egiterat. Jesus etchean sarturik, eman zen mahainean. Eta hiriko emazteki galdu

batek, jakin zueneko Jesus mahainean zela Farisauaren etchean, ekarri zuen albatrazko untzi bat olio usain on batez bethea; eta gibeletik zagolarik haren oinetan, hasi zitzaion bere nigarrez zangoen bustitzen, eta bere biloez chukatzen; gero zangoak besarkatzen ziozkan eta gantzutzen olio usain on hartaz.

Hori ikusirik Farisauak erran zuen bere baithan : « Jesus hau profeta balitz, bala-kike segur nor eta zer den hunkitzen ari zaion emazteki hori, emazteki galdu bat dela. » Bainan Jesusek erran zion « Simon, zerbait erran behar dautzut. » Simonek ihardetsi zion : « Nausia, errazu. » Jesusek orduan : « Hartzedun batek bazituen bi zordun : batek zor ziozkan bortz ehun denario, bertzeak berrogoi-ta-hamar. Nola ez baitzuten bihurtzekorik, barkatu zioten bieri. Beraz bietarik zoinek du maiteenik izanen hartzeduna ? » Simonek ihardetsi zion : « Nere iduriz, zorrik handiena barkatua izan zaionak. »

Jesusek berriz : « Ontsa mintzo zira. » Eta itzulirik emaztekiaren alderat, Jesusek

erran zion Simoni : « Ikusten duzu emazteki hau ? Zure etchean sartu niz, eta urik ez dautazu eman zangoen garbitzeko ; hunek aldiz bere nigarrez busti dauzkit eta biloez chukatu. Zuk musurik ez dautazu eman, hunek sartuz geroz, bethi zangoak besarkatzen ari dauzkit. Zuk olio-rik ez dautazu bururat ichuri, hunek zangoak usain onez gantzutu dauzkit. Horra zendako erraiten dautzutan nik : *hainitz bekatu barkhatuak zaizkio, hainitz maite nuelakotz*. Bainan gutiago barkhatzen zaiotzak , gutiago ere du maitatzen »

Gero erran zion emaztekiari : « Barkhatuak zaizkitzu zure bekatuak ». Bazkaltiarak hasi ziren elgarri erraiten : « Nor da hau bekatuak ere barkhatzen baititu ? Jesusek aldiz erran zion emaztekiari : « *Zure fedeak salbatu zitu, zoazi bakean.* »

22. — Parabola labur batzu

Hiri askoetarik jendeketa gaitza bildu baitzen, Jesusek parabola zonbait athera ziozkaten :

« Zeruetako erresumak iduri du *mustarda bihia*; hazi guzietarik hura da cheheena; bainan handitu eta, bertze belharki guziez gorago da, zuhaitz bilhakatzen da, ba eta zeruko choriak haren adarren gainean egoiterat heldu dira.

« Zeruko erresumak iduri du landa batean ehortzi duten *dirutzea*; atzeman duen gizonak gordetzen du, eta lorietan badoa, dituenak oro saltzen ditu, eta delako landa erosten.

« Zeruko erresumak iduri du *perla* ederen ondotik dabilan tratulanta; batto kausiturik arras baliosa, dituenak oro saltzen ditu eta hura erosten.

« Zeruko erresumak iduri du oraino *sare* bat. Itsasorat aurdikitzen dutelarik, edozoin arrain mota biltzen da hartarat. Bethea denean, arraintzariak atheratzen dute eta itsas-bazterrean jarririk, onak hartzen dituzte eta bertzeak botatzen. Hala hala ditake azken egunean. Aingeruak jinen dira, onak gaichtoen ganik bereziko

dituzte eta gaichtoak surat igorriko, han izanen baitute nigar eta hortz-karraska ! »

23. — Ekhaitza

Jesus untzi baterat igan zen bere d'zipuluekin. Ekhaitz edo galerna handi bat gertatu zen itsasoan eta uhainak untiaren gainetik jauzten ziren. Jesus bizkitartean lo zagon.

Dizipuluak hurbildu zitzaizkon, iratzarri zuten eta erran zioten : « Jauna, salba gitzatzu, galtzerat bagoatzi. » Jesusek ihardetsi zioten : « *Zeren beldur zirezte, fedetipiko gizonak ?* » Orduan jeiki zen, manatu zioten haizeari eta itsasoari eta bazterrak jabaldu ziren. Harriturik erraiten zuten elgarri : « Nor dugu hau, haize itsasoek sinesten baitute ? ».

24. — Nechka baten phiztea

Jaïre deitzen eta sinagokako aitzindari zen gizon bat jin zen bada Jesusen oineta-

rat, othoi etcherat hel zakion, hamabi urthetako nechka bakhar bat bazuela, hihurrana.

Jesus abiatu zen zer nahi jenderen artetik. Bazen hor emazteki bat, hamabi urthe hartan odol-jaria zaukana eta bere ontasunguzia mirikuekin chahutu zuen, batek ere ez baitzuen sendatu. Jesusen ganat hurbildurik, gibeletik arropa-litsa hunkitu zion eta bet-betan sendatu zen.

Bainan Jesusek erran zuen : « Nork hunkitu nu? » Denek ukatzen baitzuten, Petrik erran zion : « Jauna, jendeak gainean ditutzu, lehertzen zituzte eta nork hunkitu ziztuen galdegiten duzu? » Jesusek aldiz : « Bai norbaitek hunkitu nu : senditu dut berthute bat johan zitzaitala. » Emaztekia, ikusirik ezagutua zela, ikharan belhaunikatu zen haren oinetan eta ororen aitzinean erran zuen zendako hunkitu zuen eta nola zen betbetan sendatu. Jesusek erran zion : « *Haurra, zure fedeak salbatu zitu. Zoazi bakhoan.* »

Hola mintzo zelarik, sinagogako aitzindariari jin zitzaizkon erraiterat : « Alaba hil zaitzu. Ez du balio Jesus ekharraraz dezazun. » Jesusek aldiz aitari : « Ez beldurrik izan. *Sinets, eta sendatuko da.* »

Etcherat-eta, nehor etzuen berekin sartzerat utzi, baizik ere Petri, Jakes eta Joani, eta nechkaren aitetamak. Oro nigarrezari ziren. « Ez nigarririk egin; nechka hau ez da hila; lo dago bakharririk. » Eta Jesus trufatzen zuten; orok baitzakiten hila zela. Bainan Jesusek eskua hartu zion eta erran gora-gora : « Haurra, jaiki zite. »

Ordu berean nechka jaiki zen eta ibiltzen hasi. Jesusek manatu zuen nehorri etzezoten salha eta berehala haurrari eman zezoten jaterat

25. — Apostoluen lana

Jesusek bere hamabi apostoluak bildu zituen eta esku eman zioten debruen khenitzeko eta eritasun mota guzieren sendatzeko. Gero igorri zituen Jainkoaren erresuma

predika zezaten, eta erieri osagarria bihur.
Erran zioten :

« Ardiak otsoen erdirat bezala igortzen zituztet. Izan zitezte beraz sugea bezain zuhur eta usoa bezain lagno; bainan begirautzue gizonetarik : hauzitegietarat jaukituko zituzte eta beren sinagogetan azotatuko. Jujen eta erregeren aitzinerat eremanen zituzte nere gatik eta zuek nere lekukoak izanen zirezte heien eta bertze jendakien aitzinean. Heien eskuetan izanen zireztelarik bada, ez grigna zer erranen duzuen; zer erran beharko duzuen orduan berean gogoratuko zaitzue.

« *Ez beldurrik izan gorputza bai, bainan arima ezin hil dezaketenezat; izaitekotz, arima eta gorputz ifernurat aurdik zezaketenaren beldur izan zitezte. Bi etche-usososean eros ditazke. Bizkitartean bat bakharra ez da zuen Aitaren baimenik gabe erortzen denik lurrerat. Buruko ilhe guziak kondatuak zaizkitzue. Ez beraz beldurrik izan : ez othe zirezte bada asko etche chori baino gehiago ?*

« Nork ere nahiko baitu nere alde agertu gizonen aitzinean, haren alde agertuko niz ni ere nere Zeruko Aitaren aitzinean : eta *gizonen artean ukho eginen dautana, nik ere ukatuko dut nere Zeruko Aitaren aitzinean.*

« Aita edo ama ni baino maiteago duena ez da nitaz gai; eta seme edo alaba ni baino maiteago duena, ez da nitaz gai. Kurutzea harturik niri jarraikitzen etzaitana, ez da nitaz gai.

« Ongi-ethorri egiten dautzuenak, niri egiten daut, eta niri egiten dautanak, igorri nuenari dio egiten. Eta nork ere baso bat ur soilki emanen baitio nere dizipulu bati, egiaz erraiten dautzuet, ez du harek saria galduko. »

26. — Ogien mirakulua

Jesusek, begiak altchaturik eta ikusirik izigarriko jendeketa bere ganat heldu, erran zion Filiperi : « Nun erosiko dugu ogia, jende horiek zerbait izan dezaten jateko ? » Bazakien bai berak zer egin gogo zuen,

bainan apostolua frogatu nahiz ari zen. Filipek ihardetsi zion : « Berrehun denario ez litezke aski, ogi-ahamen bana emaiteko jende hoieri. » Andres, Simon-Petriren anaiak erran zion Jesusi : « Hemen bada muthiko bat : baditu bortz garragar-ogi eta bi arrain. Bainan hainbertze jendetzat zer da hori? » — « Jar-eraz itzaitzue » ihardetsi zioten Jesusek. Sorhopila baitzen, hor jarri-ziren.

Jesusek ogiak harturik eta othoitz eginik hor jarririk zaudeneri eman ziozkaten; arrainak berdin, nahi bezanbat. Denek jan zuten eta ase ziren; eta ondarrak bildu baitzituzten, hamabi saskitara ekarri zituzten gibelerat. Jan zutenak bada bortz mila ziren, emaztekiak eta haurrak bertzalde.

Orduan Jesusek dizipuluak hertsatu zituen, untzi batetarat igan zitezen eta uraz haindirat iragan, berak ostea etcherat igortzen zukelarik.. Jendeak despeditu ondoan, mendirat bildu zen ber-bera eta han othoitzean hasi,

27. — Ur gainean ibilki

Bizkitartean, haizea ere ez baitzen alde, untzia joka zeramakaten itsasoko uhinek. Laugarren gaubeila jin zenean Jesus dizipuluen ganat hurbildu zen, oinez zabilala itsaso gainean. Hori ikustearekin, izitu ziren : « Mamu bat dateke ! » zioten eta beldurrak oihu eginarazi zioten. Berehala Jesusek erran zioten : « Ni nuzue, ez beldurrik izan ! »

Petrik aldiz erran zion : « Jauna, zu bazi-tut, mana dezadazu oinez ethor nakizun urez-ur ! » — « Zatho », zion ihardetsi Jesusek; eta Petri, untzitik jautsi-eta, urez-ur abiata zen Jesusi buruz. Bainan haizeak hazkarki emaiten baitzuen, izitu zen, hondatzen ere hasi, oihuka ziolarik : « Jauna, salba nezazu ! » Jesusek eskua hedatu zion. hartu zuen eta erran : « *Fede ttipiko gizona, sendako dudatu duzu ?* »

Untzirat orduko, haizea gelditu zen eta dizipuluek Jesus adoratu zuten, erranez : « *Bai egiazki, Jainkoaren Semea zira.* »

Itsasoa iragan zuten eta Genazar delako herrian leihorratu ziren. Horko jendek ezagutu baitzuten, eskualde guzian erain zuten berria : eta eriak ekharri ziozkaten, othoi utz zitzaizkien soinekoaren litsa hunkitzez eta hunkitu zutenak oro sendotu ziren.

28. — Gorphutz-Sainduaren agintza

Biharamunean jendeak untzietarat igan ziren eta Jesusen ondotik joan ziren Kafarnaumerat. Urez haindian kausitu zuten eta erran zioten : « Jauna, nola hunaratu zira ? » Jesusek ihardetsi zioten . « Egiazki, egiazki erraiten dautzuet: bilha heldu zitzaizkitet, ez ikusi ditutzuen mirakuluek hunkitu zituztelakotz, bai ordean ogia janik ederki ase zireztelakotz. Bilha zazue galtzen ez den hazkurri bat, bethiereko bizitza irautzen dezaken hazkurria. Gizonaren semeak emanen dautzue ogi hori, Jainkoak bere seinale egin baitu. » Ihardoki zuten : « Zer ikusgarri egiten duzu bada, guk zure bai-

than sinesteko ? Nun dira zure eginkariak ? Gure aitek *mana* jan dute mortuan. Errana ere da Jainkoak eman izan diotela zeruko ogia. »

Jesusek aldiz : « Egiazki, egiazki erraiten dautzuet, Moisek ez dautzue eman zeruko ogirik; nere Aitak dautzue emaiten zeruko ogia. Alabainan Jainkoaren ogia zerutik jausten da eta bizia munduari emaiten dio. » Erran zioten : « Jauna, iguzu bethi ogi hortarik. » Jesusek berriz : « Ni niz biziaren ogia. Nere ganatuko dena ez da gose izanen, ez eta nere baithan sinetsiko duena egarri. » Juduak hasi ziren bada murmurika, baizik eta erran zuela : « *Ni niz zerutikako ogi bizia* »; eta bazioten elgarri: « Hau ez dea Jesus, Josepen semea : haren aitetamak ezagutzen ditugu. Nundik erran dezake beraz : zerutik jautsia niz ? »

Jesusek ihardetsi zioten : « Ez ar murmurika zuen artean. Egiazki, egiazki erraiten dautzuet : nere baithan sinesten duenak bethiereko bizitzea badu. Biziaren ogia niz. Zuen arbasoek *mana* jan izan dute mortuan

eta hil dira. Ni, ogi bizia niz, zerutik jautsia. Nork ere ogi hortarik janen baitu, hura bethiere biziko da ; eta munduaren biziarazteko eman gogo dutan ogia, nere haragia da. »

Hortan liskartu ziren Juduak, erranez :

« Nola gizon horrek bere haragia jaterat emaiten ahal dauku ? » Jesusek erran zioten : « Egiazki, egiazki erraiten dautzuet ; *baldin gizonaren Semearen haragia ez baduzue jaten eta haren odola edaten, ez duzue bizirik izanen zuen baithan. Nere haragia jaten eta odola edaten duenak bethiereko bizia badu eta azken egunean phiztuko dut : alabainan nere haragia egiazko hazkurri bat da eta odola egiazko edari bat. »*

Dizipulu zonbaitek erran zuten : « Solas horiek gogorrak dira, nork entzun ditzazke ? » eta joan ziren eta behin ere ez itzuli haren ganat. Jesus hamabieri jabeldu zaio-ten : « Eta zuek, ez zirezte joan nahi ? » Simon-Petrik ihardetsi zion : « *Jauna, noren*

ganat bagoazke? Zuk ditutzu-eta bethiereko bizitzearen hitzak. Sinetsi dugu eta ezagutu zu zirela Kristo, Jainkoaren Semea ». Jesussek erran zioten : « Ez othe zituztet hamabiak hautatu ? Bizkitartean debru bat bada zuen artean. » Judasez mintzo zen, hunek saldu behar baitzuen, hamabietarik bat izana gatik.



JESUSEN BIZITZE AGERIA

HIRUGARREN URTHEA

29. — Kananearra

Jesus Tir eta Sidon-eko inguruetarat ari zelarik, hor gaindiko emazteki kananear bat oihuka hurbildu zitzaion : « Jauna, Dabiden Semea, urrikal zakizkit; Alaba dut debruak oinhazetan daukana. » Hitzik etzion ihardetsi .Dizipuluek aldiz erran zuten : « Igorrazu hemendik, oihuz jarraikitzen zaiku. » Jesusek ihardetsi zioten : « Ez niz igorria Israelgo ardi galduetarat baizik. »

Emaztekia aitzinatu zen halere eta ahuspez emanik erran zion : « Jauna, hel zakizkit ! » Erantzun zion : « Ez da zuzen haurren ogia harturik nehork zakurreri aurdik diezoten. » Emaztekiak berriz : « Hala da, Jauna, bainan chakurrak ere nausiaren

mahainetik erortzen diren purruchketarik ez othe dira bizi?» Orduan Jesusek erran zion: « *O emaztekoa, handia da zure fedea. Egin bekizu, nahi duzun bezala.* » Eta ordu berean alaba sendotu zitzaion.

30. — Elkor eta mutu

Tir-eko eskualdea utzirik, Jesus, Sidonen gaindi, Galileako itsasoari buruz bazoan Mutu eta elkor zen gizon bat ekarri zioten. eskuak gainerat heda zitzen. Jesusek zoko batetarat ereman zuen, jendetarik urrun, eta hor erhiak ezarri ziozkan beharrietan eta mihi gainean aho gozoa; gero begiak zera alde goititurik, hasperen bat egin zuen eta hitz hauk erran : « Ephpheta » erran nahi baita : idek zitezte. Beharriak berehala ideki ziren, mihia zalhoindu, eta bera mintzatzzen hasi deus trabarik gabe.

Jesusek agindu zioten neheri etzezoten erran : bainan harek debekatuago, heiek erranago, miretsirik zaudela : « *Denak*

ederki egin ditu, zioten bada, elkorreri entzunerazi diote eta muthuak mintzarazi ditu, »

31. — **Jon doni Petriren ihardespena**

Zezare-ko aurkhintzetarat jirik, Jesusek galde egin zioten bere dizipulueri : « Zer diote Gizonaren Semeaz ? » Ihardetsi zioten : « Batzuek Joani-Batista dela diote, bertze batzuek aldiz Elias, bertze askok Jeremias ala gisa hortako profeta bat. » — « Eta zuek, nor nizela diozue ? »

Petrik erran zion : « *Zu Kristo zira, Jainko biziaren Semea!* » Jesusek ihardetsi zion : « Dohatsu zira, Simon, Joanesen semea ; alabainan ez dautzute haragiak eta ez odolak holakorik salhatu, bai ordean nere zeruko Aitak. *Eta nik erraiten dautzut Petri zirela, erran nahi baita harri, eta harri horren gainean eraikiko dut nik nere Eliza eta ifernuko atheak ez zaizko behin ere nausituko, Zeruetako erresumako gakhoak emanen dautzkitzut ; lurraren gainean lotuko*

ditutzunak oro zeruan ere lotuak izanen dira, eta lurraren gainean deslotuko ditutzunak, zeruan ere deslotuak ditezke. »

Orduan, Jesus hasi zitzaioten dizipulueri erraiten, Jerusalemerat joan beharko zuela, han hil eta hirugarren egunean phiztu. Eta erraiten zioten : « *Nere ondotik jin nahi duenak, bere buruari ukho egin dezola, bere kurutzea har eta niri jarraik. Ezen bizia beiratu nahiko duenak galduko du, eta nere gatik galduko duenak berriz ere ukanen. Zer on duke gizonak, mundu guzia irabazirik ere, bere arima galtzen badu ? Ala zertan trukatu du bere arima ? Ezen, gizonaren Semea bere aingeruekin bere Aitaren ospean ethortzekoa da eta orduan nori bere lanen araberako saria emanen dio. »*

32. — Jesusen itchuraldatzea

Handik sei egunen buruan, Jesusek Petri, Jakes eta Joani hartu zituen berekin eta mendi gain batetarat ereman. Heien aitzi-nean itchuraldatu zen. Begitartea iguzkia

bezain distira agertu zitzaion, soinekoak aldiz elhurra bezain churi. Denbora berean, Moises eta Elias ikusi zituzten, harekin solasean ari zirela. Petrik erran zion bada Jesusi : « Jauna, ontsa gira hemen ; nahi baduzu, egin ditzagun hiru etchola, bat zuretzat, bertze bat Moisentzat, bertzea Eliasen. » Oraino mintzo zelarik, egin zen hedoi argitsu bat eta estali zituen, eta hedoi hartarik mintzo bat ilki zen : « *Hau da nere Seme maitea : huntan niz gehienik gozaten; entzun ezazue!* »

Hitz horiek dizipuluak harritu eta izitu zituzten : ahuspez erori ziren. Jesus lurbil-
du zitzaioten, hunkitu zituen, ziolarik : « Chuti zitezte, ez lotsa ! » Orduan behatu zuten eta Jesus ikusi zuten, bertze nehor gabe. Mendiari behera jaustearekin, Jesus-
sek debeku hau egin zioten : « Gizonaren Semea hilen artetik phiztu artio, ez nehor salha zer ikusi duzuen ! »

33. — Debrudun baten sendatzea

Jesus ikusi zutelarik, jendeak jauspenez eta beldurrez bethe ziren eta agur egiterat

ethorri zitzaizkon. Gizon batek erran zion : « Jauna, nere semea ekarri dautzut. Izpiritu muthu batek bereturik dauka. Debrua lotzen zaiolarik, lurrerat aurdikitzen du, eta orduan haurra hortz-karraskan ari zaiku, haguna dariola, eta eihartuko da. » Jesusek erran zion : « Ekarrazu hunat » eta ekarri zuten. Jesus ikusi orduko, haurra lurrerat erori zen eta ihalozka hasi, harrapoa ezpainenetan.

Jesusek debrudunaren aitari galdatu zion : « Noiz lotu zaio gaitz hori? » — « Ttipi-ttipitik, Jauna, eta debruak askotan surat eta urerat aurdiki du, galdu beharrez. Deusik egiten ahal baduzu, urrikal eta hel zakizkigu ! » — « *Sinesten ahal baduzu, erran zion Jesusek, ezinezko gauzarik ez da sinesten duenarentzat.* » Ordu berean, haurraren aita, nigarrez, oihuka hasi zen : « *Sinesten dut, Jauna, baina azkar zazu nere fede pochia.* » Orduan Jesusek, jendeketa gaitza heldu zitzaiola ikustearekin, debrua larderiatu zuen, erranez : Izpiritu elkor eta muthua, athera hadi haur hunen gorphu-

tzetik eta ez behinere haren ganat itzul. Manatzen daiat. » Debrua izkiloka eta haurra borthizki daldararaziz athera zen eta haurra hila bezala gelditu zen, halatan nun askok hila zela erraiten baitzuten. Bainan Jesusek eskutik hartu zuen, chutitzerat lagundu, eta haurra chutitu zen.

34. — Eskandala

Dizipuluak Jesusen ganatu ziren eta erran zioten : « Zure ustez, nor da handiena zeruko erresuman? » Jesusek haurgno bat deitu zuen eta heien erdian ezarri, ziolarik : « *Egiazki erraiten dautzuet, ez balinbazi-rezte oneratzen, eta haur batzu bezala bilhakatzen, ez zirezte zeruko erresuman sartuko. Haur hunen heinerat bere burua aphalduko duena, handiena dateke zeruko erresuman. Bainan nehork, nere baithan sinesten duten haur hauietarik bat gaizki-rat eror-arazten badu, hobe luke harek, eihera-harri bat lepotik eman eta, itsas-zola-rat aurdik balezate.*

Zorigaitz munduari, emaiten dituen eskandalen gatik. Eskandalak ez ditazke oro khen. *Hanbat gaichtoago ordean eskandala emaiten duenarentzat.* Eskua edo zangoa eror-bide bazaizkitzu, motz-kitzu eta aurdik. Hobe duzu bizian beso-motz edo zango-motz sarturik ezen ez bethiereko suan zure bi esku eta bi zangoekin. Eta zure begia eror-bide bazaitzu, athera zazu eta aurdik. Hobe duzu okher sarturik bizian, ezen ez zure bi begiekin su-leizean.

Ez othoi gutiets batto ere ttipi hauietarik : erraiten dautzuet heien aingeruek nere zeruko Aitaren begitartea bethi eta bethi ikusten dutela. »

35. — Laidoak barkha

Orduan Petri hurbildu zen eta erran zion : « Jauna, nere anaiak gaizki zerbait egiten badaut, zonbat aldiz beharko diot barkhatu ? Zazpi alditaraino ba othe ? » Jesusek ihardesi zion : « Ez dautzut erraiten barkharrik zazpi alditaraino, bai ordean zazpitan hirur-hogoi eta hamarretaraino.

« Zeruetako erresumak iduri du, bere sehiakin egitekoak churitu nahi izan zituen erregea. Hasteko, batto ekharri zioten, hamar mila talendu zor ziozkana. Heien ordaintzekorik ez baitzuen, nausiak manatu zuen, gizona sal zezaten bere emazte, haur eta ontasun guziekin, eta hortik hartzekoak athera zitzoten. Bainan, haren oinetarat ahuspekaturik, sehia othoitzez hasi zitzaion, erranez : « Ephe pochi bat emadazu, denak bihurtuko daukitzut. » Orduan nausia urrikaldu zen, utzi zuen joaiterat, eta zorrak barkhatu ziozkan.

« Sehi horrek, athera orduko, buruzburu egin zuen ehun denario zor ziozkan bere muthil-kidetarik bat. Zintzurretik loturik ithotzen ari zuen, ziolarik : « Emak zor dukana ! » Eta han, haren oinetarat ahuspekaturik, othoitzez ari zitzaion : « Ephe pochi bat emadazu, denak bihurtuko daukitzut. » Bainan hartzedunak ez zuen onhartu eta preso altcharazi zuen, zorra ordaindu artio.

« Bertze sehiak hori ikustearekin biziki atsegabetu ziren eta nausiari erran zioten. Orduan nausiak igorri zion ethortzeko eta erran zion : « Zerbitzari gaichtoa, zure zor guziak kito utzi dauzkitzut, zeren galdegin baitzinautan. Ez othe zintzaizkon urrikaldu behar zure lagunari, ni zuri urrikaldu nizaitzun bezala ? » Eta hasarreturik, jaunak gaztigatzaileen eskuetan eman zuen, zor zion guzia itzuli artio.

« *Hala-hala eginen dautzue nere zeruko Aitak, baldin-eta bat-bederak ez badiozue bihotzaren erditik barkhatzen zuen anaia-ri.* »

36. — Itsurik sortu gizona

Iragaiten zelarik, Jesusek ikhusi zuen sortzetik itsua zen gizon bat; eta dizipuluak galdeka hasi zitzaizkon : « Nausia, zeinek egin othe du bekhatu, hunek ala hunen aitamek, hola itsu sortzeko ? » Jesusek ihardetsi zioten : « Eztu hunek bekhatu egin, ez eta hunen aitamek ere : bainan hola gertatu izan da, hunen baithan Jainkoaren ahala ager dadin. »

Horiek erran-eta thu egin zuen lurrerat, eta ahozogo harekin lohi pochi bat eginik, hartaz gantzutu ziozkan begiak itsuari. Eta erran zion : « Zoazi, eta garbi zaite Siloeko ikhuztegian. » Gizona joan zen, ikuzi, eta argiturik itzuli zen.

Auzoek eta eskatzen ikhusi zutenek zioten : « Ez dea gure eskale hura ? » Batzuek aiertz hura zela. Bertzek : « Ez, haren iduriko bat da. » Berak aldiz erraiten zioten : « Hura, nihur nuzue. » Heiek galdegin zioten bada : « Nola ideki zaizkitzu begiak ? » Ihardetsi zuen : « Jesus deitzen duten gizon harek lohi pochi bat egin du, hartaz begiak perekatu dauzkit eta erran daut : Zoazi Siloeko garbitegirat eta garbi zaite han. Joan niz bada, garbitu naiz, eta ikhusten dut. » — « Nun da hura ? » zioten galdetu. — Ez dakit. » Farisauetarik zonbaitek erraiten zuten : « Larunbata begiratzen ez duen gizon hura ez dathorke Jainkoaren ganik. » Bertze batzuek berriz : « Bekatore bateg nola egin dezake mirakulurik ? » Eta eskatima zuten beren artean.

Itsuari galdegin zioten : « Eta zuk zer diozu begiak ideki dauzkitzunaz ? » Ihardetsi zuen : « Profeta dela. » Bainan Juduek neholere etzuten sinetsi nahi itsua izana zela, ez eta argitua, haren aitetamak ekhar-arazi artean. Eta galdegin zioten hauieri : « Hau, zuen seme, sortuz geroz itsu zela diozuen hura dea ? Nola ditake bada orai ikhustea duela ? »

Burhasoek erran zuten : « Badakigu gure semea dela eta itsurik sortu dela; orai nola ikhusten duen guk ez dakigu, ez eta nor ideki diozkan begiak; berari galda zozue: adinak baditu, bera mintzatuko da. » Aitamek Juduen beldurrez egin zuten ihardespen hori; ezen Juduak elgar hitz-hartuak ziren. baldin-eta nehorik aithortzen bazuen Jesus Kristo zela, biltzarretik haizatua zatekela. Horren gatik erran zuten aitamek : « Adinak baditu, berari galda zozue. »

Juduek berriz ere erakbarri zuten itsu izatu gizona eta erran zioten : « Aithor-emozu Jainkoari; badakigu gizon hura gaichtagin bat dela. » Harek aldiz : « Gaich-

lagina denetz, bai ala ez, nik ez dakit; hau dakit baxharrik : itsu nintzela eta orai ikhusten dutala. » Erran zioten : « Zer egin dautzu ? Nola ideki dauzkitzu begiak ? » Ihardoki zuen : « Jadanik erran izan dautzuet eta aditu izan duzue. Zergatik nahi duzue berriz entzun, ala haren dizipulu jar tzekotan zuek ere ? »

Orduan laidoka hasi zitzaizkon eta erran zuten : « Zuhau izan zaite haren dizipulu : gu Moisesen dizipulu gira. Badakigu Jainkoa Moisesi mintzatu izan zaiola; hau ordean ez dakiu nungo den. » Gizonak ihardetsi zioten : « Hauche da harrigarria, ez baitakizue nundikakoa den, eta harek nere begiak sendotu. Badakigu araiiz Jainkoak ez duela gaichtaginik entzuten; baina nehor balin bada haren zerbitzari eta haren nahia- ren egile denik, hura du Jainkoak entzuten. Egundaino ez da aditu nehorik itsu sortu den bat argitu duela. Hau ez balitz Jainkoaren ganik heldu, ezin egin lezake deus ere. » Erantzun zioten : « Bekhatuan ithorik sor-

tua zira eta eskolatu nahi gitutzu ? Eta biltzarretik eskumikatu zuten.

Jesusek jakin zuen nola haizatu zuten eta buruz-buru egin zuen batez erran zion : « Jainkoaren Semea baithan sinesten duzuia ? » Ihardetsi zuen : « Nor da hura, Jauna, sinets dezadan ? » Jesusek aldiz : « Jadanik ikhusi duzu : eta *mintzo zaitzun hau, hura bera da.* » Gizonak oihu egin zuen : « Sinesten dut, Jauna. » Eta ahuspez eroririk adoratu zuen.

37. — Artzain ona

« Egiazki erraiten dautzuet : artzain onak nuz. *Artzain onak bere bizia emaiten du bere ardientzat.* Bainan dirutan artzain dagonak, egiazko artzaina ez denak eta ardiak bereak ez dituenak, otsoa jiten ikhusten duenean, ardiak uzten ditu eta ihesari emaiten da. Eta otsoak atchemaiten ditu eta barreatzen. Dirutan artzain dagona ihes doa, zeren sari-takoa den eta ardiez ez baitu den gutieneko acholarik

Ni naiz artzain ona. Nere ardiak ezagutzen ditut eta nere ardiek ezagutzen nute. Nere Aitak ezagutzen nūen bezala, nik ere ezagutzen dut nere Aita eta nere ardientzat emaiten dut nere bizia. Baditut bertze ardiak ere saldo huntarik ez direnak eta hek ere bildu behar ditut. Nere boza entzunen dute, eta ez da izanen arthalde bat eta artzain bakhar bat baizik. »

38. — Samaritano ona

Lege-erakusle batek, Jesus bere hitzetan atcheman nahiz, erran zion : « Jauna, zer egingen dut bethiereko bizitzearen ardieste-kotz ? » Jesusek ihardetsi zion : « Zer da emanik legean ? Zer irakurtzen duzu hartan ? » Harek erantzun zion : « *Zure Jainko Jauna maithatuko duzu bihotz guziaz, indar guziaz, arima guziaz, gogo guziaz eta zure hurbileko laguna ere zure burua bezala. » Jesusek erran zuen : « Ederki ihardetsi duzu : horiek egizkitzu, eta biziko zira. »*

Bainan harek bere burua onets-arazi nahiz galdegin zion Jesusi : « Nor da nere

laguna? » Jesusek erran zion : « Gizon bat, Jerusalemetik Jerikorat zoalarik, ohoienen eskutartean erori zen eta hauiek, denak ebatsi ondoan, umatu zuten eta erdi-hila utzi. Aphez bat bide beretik jausten zen : gizona ikhusi zuen eta joan zen aitzina. Lebita bat, han nunbait izaki-eta, ikhusterrat hurbildu zitzaion eta urrundu.

« Bainen bidaiez bazabilan Samaritano bat ondorat jin zitzaion eta hura ikhustearekin urrikaldu. Ukurtu zen eta zauriak lothu ziozkan, olioa eta arnoa ichuri ondoan. Gero bere zaldiaren gainerat heldu zuen, ostatu batetarat ereman eta han arthatu. Biharamunean bere moltsatik bi denario athera zituen eta ostalerari eman erranez : « Gizon huntaz artha har-azu, eta gehiago chahutzen baduzu, gibelatekoan ordainduko dautzut. »

« Hiruetarik zoin izan da, zure iduriko, ohoienen eskutartean erori gizonaren hurbileko laguna ? » Lege erakusleak iharde-

tsi zuen: « Urrikaldu izan zaiona. » Jesusek erran zion: « Zoazi eta egizu bertze hainbertze. »

39. — Zikhoitzaren zorokeria

Gizon aberats batek lur-alde bat bazuen hainitz ekhartzen ziona eta bere baithan erraiten zuen: Zer eginen dut? Ez dut-eta nere uztaren altchatzeko lekurik. Huna zer eginen dutan; nere sehauruak barreatuko ditut, handiago batzu eginaraziko eta hetan ezarriko ditut nere uzta eta ontasun guziak. Eta nere arimari erranen diot: Nere arima, ontasuna frango baduzu asko urtherentzat; pausa zaite, jan, edan, eta atsegin har-azu. Bainan Jainkoak erran zion: « *Zorua, gaur berean gibelerat galdeginen dauiat hire arima; eta bazterrerat altchatu ditukan ontasunak, norentzat dituzkek?* »

Horra nola ari den ontasun biltzale, Jainkoaren aitzinean aberats ez den gizona. »

40. — Atzartasun eta penitenzia

« Atchik-azue uhala gerrian eta argia eskuan phiztua, ezteietarik heldu behar den nausiaren aiduru dagotzin zerbitzariek bezala : hurā jin eta atnea jo orduko idekiren diote Dohatsu, itzultzean nausiak atzarri-rik kausituko dituen muthilak! Egiaz erraiten dautzuet, berak hartuko du oihala gerrian, mahainean jar-araziko ditu eta berak zerbitzatuko. Eta bigarren ala hirugarren gau-beilean balin-badathor eta atzarriak aurkhitzen baditu, dohatsu hek !

« Aita familiako batek balaki ohoina jin behar den tenorea, atzarria lagoke eta bere etchea ez lezake bortchatzerat utz. Zuek ere zagozte bethi erne ;ezen giza-semea *uste gabeko orenean ethorriko zaitzue.* »

Egun hetan, gizon zonbait jin zitzaizkon Jesusi mintzatzerat, Pilatusek hil-arazi Galilear batzuez. Jesusek erran zioten : « Uste duzue Galilear horiek bertzeak baino gaichtoagoak zirela, hola pairatu dutelakoan? Nik erraiter dautzuet ezetz ; *bainan ez baduzue*

penitentziarik egiten, hek bezala galduko zirezte, denak.

« Hala-hala Siloeko dorrea erori zelarik, hemezortzi gizon lehertu eta hil baitziren, uste duzue Jerusalemeko bertze jendeak baino hobendunago zirela ? Nik erraiten dautzuet ezetz ; *bainan ez baduzue penitentziarik egiten, hek bezala galduko zirezte.* »

41. — **Ardi galdua**

Publikano eta bekatoros batzu Jesusen ganatzen ziren, haren aditzeko, eta Fari-sauek Eskribauekin murmurikatzen zuten, erranez : « Gizon horrek gaichtaginak biltzen ditu eta heiekin jaten du. » Hortaz parabola hau erran zioten :

« Nork zuetarik, ehun ardiren jabe izaki-eta, batto arlotzen bazaio, ez ditu bertze lau-etan hogoi-ta hemeretziak utziren, galdu bakharraren ondotik atcheman arte ibiltzeko ? Eta aurkitu duenean, bizkarrean emaiten du alegerarik; eta etchera bezain laster, adichkideak biltzen ditu auzoekin

batean eta erraiten diote : Bozkaria zitezte nerekin, zeren galdu nuen ardia atchewan baitut. Halaber erraiten dautzuet zeruan atsegin gehiago izanen dela penitentzia egiten duen bekhatore bakhar batentzat, ezen-ez penitentziarik behar ez duten lauetan hogoi-eta hemeretzi justuentzat. »

« Berdin hamar diru-peza dituen emazte batek, batto galtzen badu, ez othe du argia phiztuko, eta etchea jatsaz garbituko, bilha eta bilha, atchewan arte ? Eta kausitu duenean auzo adichkideak biltzen ditu, diolarik : Bozkaria zitezte nerekin, zeren galdu nuen urhea atchewan baitut. Halaber erraiten dautzuet, Jainkoaren aingeruek alegrantzia handia dukete bekatore bakhar bat bera onerutzen bada. »

42. — Haur prodigoa

Gizon batek bazituen bi seme. Gazteenak erran zion aitari : « Aita, emadazu niri heltzen zaitan ontasuna »; eta aitak eman zioten bakhotchari berea. Handik berehala,

seme gazten hori, bere puska guziak harturik joan zen atze-herri urrun batetarat eta bere ontasun guzia itsuski chahutu zuen.

Ukhanak oro jan zitueneko, gosete handi bat egin zen herri hartan, eta eskasian gertatu zen. Joan zen eta hango etcheko-jaun baten muthil jarri. Harek bere landetche batetarat igorri zuen, urde-zain. Han nahiko zuen ase cherriek jaten zutenetik, bainan nehork etzion emaiten. Azkenean, bere baithan sarturik, erran zuen : « Zonbat sehi ez dira nere aitaren etchean, ogia nasaiki dutenak, eta ni hemen goseak hiltzen ari ! *Jeikiko niz, eta joanen niz nere aitaren ganat, eta erranen diot : Aita hobendun niz zeruaren eta zure alderat.* Ez dut zure semearen izenik hartzeko zuzenik gehiago : har nezazu zure muthiletarik bat bezala.

Jeiki zen beraz eta ethorri zen bere aitaren ganat. Eta urrun zelarik oraino, aitak ikhusi zuen eta bihotzak eginik, lasterka joan zitzaion biderat, jauzi egin zion leporat eta besarkatu zuen. Semeak erran zion : « Aita, hobendun izan niz zeruaren eta zure

kontra. Ez dut zure semearen izenik hartzeko zuzenik engoiti. »

Bainan aitak erran zioten sehieri : « Ekhar-ozue berehala bere leheneko jaun-
tzia eta soinerat eman; ezar-ozue erhaztun
bat erhian eta oskiak oinetan. Ekhar cha-
hal gizona eta hil-zazue, eta egin dezagun
bazkari ; ezen nere seme hau hila zen, eta
huna non phiztu den, galdua zen eta berriz
hemen dugu. » Eta hasi ziren bazkari egi-
ten.

Bizkitartean landetan zen seme gehiena;
eta etcherat hurbiltzen zelarik, soinua eta
dantza-otsa entzun zituen. Sehi bat deitu-
rik galdegin zion, zer zen bada holakorik.
Ihardetsi zion : « Zure anaia ethorri da,
eta zuen aitak aratche gizona hil-arazi du,
osagarri onean aurkhitu duelakotz. »
Samurtu zen zaharren hori eta ez zen sartu
nahi ; orduan aita athera zitzaion eta
otroiztu zuen sar zadin. Bainan harek ihar-
detsi zion aitari : Hanbat urthe huntan zure
lanetan ari niz ,bethi zure erranetik, eta
behinere ez dautazu pittika bat ere eman

nere adichkidekin jateko. Bainan ethorri dea bada zure seme hau, zituen guziak emazte galduekin iretsirik, berehala hil arazi duzu harentzat aratche gizona. »

Aitak erran zion : « Nere haurra, zu bethi nerekin zira eta nere guziak zureak dirade. Bainan behar ginuen egin bazkari eta atsegin hartu, zeren zure anaia hil baitzen eta berriz phiztu baita, galdu baitzen, eta aurkitu baita. »

43. — Aberats gaichtoa

« Lehenago bazen gizon bat aberatsa, eskarlatez eta zirikuz jaunzten zena, eta egun oroz othoruntz ederrak egiten zituen. Eta bazen gizon behar bat, Lazaro deitua, haren athean etzana, oro zauri ; gogotik janen zituen aberatsaren mahainetik erori purruchkak ; bainan nehork ez ziozkan emaiten, eta chakurrak heldu zitzaizkon zaurien milikatzerat.

Eskalea egun batez hil zen eta aingeruek Abrahamen altzorat ereman zuten. Aberatsa ere hil zen, eta ifernuan izan zen ehortzia.

Oinhazeen artetik, begiak goititu zituen eta urrundik Abraham ikhusi zuen, bai eta Lazaro ere haren altzoan ; eta heiagoraz hasi zen : « Aita Abraham, urrikal zakizkit eta igor-azu Lazaro : erbi mokhoa busti dezala urean nere mihiaren hezatzeko; ezen *izigarri pairatzen dut su-lama hautan.* »

Abrahamek ordean erran zion : « Haurra, orhoit zite zure bizian zuk onak izan ditut-zula, hunek alditz gaitzak : orai hau atseginetan dago eta zu atsegabetan. Bertzalde dena, leize bat bada zu eta gutartean, halakoa nun hemendik horrat iragan nahi litezkenak, ez baititezke, ez eta hortik ere hunat. »

Aberatsak ihardetsi zuen : « Lazaro igor-azu bada othoi nere aitaren etcherat; bortz anaia baditut han ; hemengo berri eman dezotela, ez diton hek ere min gaitzezko toki hauietarat ethor. » Abrahamek erantzun zion : « Badituzte Moises eta Profetak, hek entzun bitzate. »

Harek erran zion : « Ez bada, Abraham nere aita; bainan hiletarik norbait balinba-

doakiote, urrikitan sartuko dira. » Ordean Abrahamek ihardoki zuen : « Moises eta Profetak ez sinesten-eta, hiletarik norbait phitz balakiote ere, ez dute sinetsiko »

44. — Lazaro phizten da

Bazen eri bat, Lazaro zeritzana. Bethaniako zen, Maria eta Martha bi ahizpen herrikoa (Maria hau da Jesusi zangoak gantzutu eta bere ileez chukatu ziozkan hura, eta haren anaia zen Lazaro delako eria). Arrebek igorri zioten Jesusi hitz hau : « Jauna, zuk maite duzuna eri da. »

Jesusek ihardetsi zuen : « Eritasun hau ez da heriotzerako, baina Jainkoaren ospearentzat, Jainkoaren semea goretsia izan dadin. » Jesus, Martha eta haren ahizpa Maria eta Lazaroren adichkidea zen. Jakin zuenan Lazaro eri zela, bi egun egon zen aitzina leku berean ; eta gero erran zioten dizipulueri : « Lazaro gure adichkidea lo dago, baina iratzarriko dut. » Dizipuluek ihardetsi zuten : « Lo egiten

badu, sendatuko da. » Jesus heriotzeaz mintzo zen, eta uste izan zuten loa aiphatzen zuela bakharririk.

Orduan Jesusek erran zioten garbiki : « Lazaro hil da ; eta zuen gatik loriatzen niz, han ez bainiz gerthatu, amorea-gatik-eta sinets dezazuen. Goazen bada, haren ganat. » Jesus ethorri zen, eta lau egun hartan Lazaro hobian ezarria zuten ; eta Judu asko Martha eta Mariaren ikhusterat jin ziren, anaiaren hiltzeari zoakon hitz on zer-baiten erraiteko.

Martha, Jesus heldu zela jakinik, berehala joan zitzaion biderat ; Maria aldiz etchen egon zen jarririk. Martha erran zion Jesusi : « Jauna, hemen izan bazine, ez zen hilen nere anaia ; bainan badakit zer nahi galda dezozun Jainkoari, Jainkoak emanen dautzula. Jesusek segitu zuen : « *Ni, phiztea niz eta bizitzea. Ni, baithan sinesten duena, hila balitz ere, phiztuko da : eta nor ere bizirik baita eta sinesten bainu, ez da hura bethierekotz hilen. Sinesten duzu hori ?* » — « Ba, Jauna, ihardetsi zion Mar-

thak, *sinesten dut mundu huntarat ethorri Kristo, Jainko bizi denaren Semea zirela.* »

, Hortan joan zen eta ichilka Maria bere ahizpa deitu zuen, ziolarik : « Nausia hemen dugu, deitzen zitu. » Maria berehala jeiki zen eta haren ganat joan. Mariarekin etchean ziren Juduak, ikhusi zutenean hain bet betan chutizen eta atheratzen, jarraiki zitzaizkon erranez : « Hobira johan da, nigar egiterat. »

Bainan Maria, Jesus zen tokirat orduko, haren onetara erori zen, ziolarik : « Jauna, hemen izan bazine, ez zen hilen nere anaia. » Jesus, ikhustearekin Maria eta harekilako Juduak ere nigarrez, laztu zen bere baithan eta bihotzak halako bat egin zion. Galdatu zuen : « Nun ezarri duzue ? » Erran zioten : « Jauna, zatho ikhusterat. » Eta *Jesusek nigar egin zuen !* » Bainan zonbaitetek bazerasaten : « Sortzetik itsu zena argitu duelarik, hau ez zuena bada hiltzetik begiratzen ahal ? »

Jesusi berriz ere laztu zitzaion barne guzia eta hobirat jin zen. Hobia harpe bat zen, eta harri bat emana zuen gainean. Jesusek erran zuen : « Khen-azue harria. » Marthak aldiz . « Jauna, gaurgero usaindua dateke, ezen lau egun huntan hila da. » Jesusek ihardesten dio : « Ez othe dautzut erran, baldin-eta sinesten baduzu, Jainkoaren ahala agertuko zaitzula ? » Harria khentzen dute bada eta Jesusek begiak alchatzen ditu diolarik : « Aita, eskerrak dauzkitzut, zeren entzun bainuzu. Nik banakien bethi entzuten nuzula ; bainan hola mintzo niz, inguruan den jendetze hunen gatik, sinets dezaten heiek ere zuk igorria nizela. »

Hitz horien ondoan, erran zuen oihu handi batekin : « Lazaro, ilkhi zaite hortik. » Eta bet betan hila atheratu zen, oin-eskuak lokharri cherrenda batzuez estekatuak, eta begitartea hil-oihalaz estalia. Jesusek erran zioten : « Khen-oitzue lokharri hoik eta utz-azue doala. »

Maria eta Martharen ganat ethorri Judue-
tarik hainitzek, Jesusen mirakulu hori

ikhusirik, sinetsi zuten haren baithan. Bainan zombait Farisaueri joan zitzaizkoten erraiterat zer egin izan zuen Jesusek. Orduan aphez-nausiek eta farisauek bilzarra egin zuten eta hauche zioten elgarri: « Zer eginen dugu? Mirakulu hainitz egiten du gizon horrek. Hola uzten badugu, denek sinetsiko dute haren baithan; eta Erromancak jinen dira eta erhautsiko gituzte, gu eta gure hiria. »

Heietarik batek Kaifas zuen izena eta erran zioten: « Zuek ez dakizue deusik; ez duzue bada gogoari emaiten *hobe duzuela segurki, gizon bakhar bat hil dadin herriarentzat, ezen ez herri osoa gal dadin.* » Hitz horiek ez zituen bere baitharik athera; bainan urthe hartako aphez-nausi baitzen Izpiritu sainduak erran-arazi zion aitzinetik, Jesus denentzat hil beherra zela, eta egun hartaz geroztik Jesusen hiltzeko chedea hartu zuten.

45. — Hamar legentsuak

Herrichka batean sartzearekin, Jesusek hamar legentsu aurkhitu zituen; eta hur-

bildu gabe oihu egin zioten : « *Jesus gure Nausia urrikal zakizkigu.* » Berehala ihardetsi zuen : « Zoazte eta aphezen aitzinerat ager zitezte! » eta haratekoan sendotu ziren.

Heietarik batek, sendotua zela oharturik, gibclerat egin zuen, Jainkoa goraki laudatzen zuela ; eta Jesusen oinetarat ahuspez erori zen eskerren bihurtzeko. Samaritano bat zen. Orduan Jesusek erran zuen : « Hamarrak ez direa bada oro sendotu? Nun dira bertze bederatziak ? Arrotz hau baizik ez da gerthatu Jainkoaren gorestekoko itzuli denik. » Eta gizonari : « Chuti zaite eta zoazi ; *zure jedeak salbatu zitu.* »

46. — **Jujea eta alarguntsa**

Jesusek bertze behin alegia hau erran zuen, eraskusteko bethi behar dela othoitz egin, nehoiz aspertu gabe.

« Hiri batean juje bat bazen, Jainkoaren beldurrik ez zuena eta gizonez achola guti. Hiri hortako alarguntsa bat jin zitzaion erraiterat : « Eman-araz diezadazu nere

zuzena kontrakoaren ganik. » Lehenik ezetz ihardetsi zion, baina azkenean bere baithan egon zuen : « Nahiz ez dutan Jainkoaren beldurrik, ez eta gizonez ere acholarik, halere alharguntsa hori bethi ondotik dotalakotz sinkulinez, lemanen diot bere zuzena: hola ez zait bethi unhatzerat ethorriko. »

Jesusek iratchiki zuen : « Entzun duzue juje gaichto horren hitza. Eta uste duzue Jainkoak ez dituela bere hautetsiak mendekatuko, gau eta egun deiadarrez ari zaizkolarik; eta pairatzerat utziko dituela? Hitz dautzuet laster mendakatuko dituela. Baina gizasemea dathorkenean, aurkhituko othe du lur-gainean sinesterik? »

47. — Farisaua eta zerga-biltzalea

Bertze batzueri, saindu zirelako ustean, beren buruak gora baitzauzkaten eta bertze guziak deus guti, Jesusek parabola hau kondatu zioten :

« Bi gizon igan ziren tenplorat, othoitz egiteko : bata farisaua zen, bertzea publi-

kano edo zerga-biltzalea. Farisaua, chutik, hunelache ari ari zen othoitzean ahapeka : « Nere Jainkoa, eskerrak dautzkitzut, zeren ez bainiz bertze gizonak bezala ohoin, bidegabe, lizun, ez eta horcheko publikano horren idurikoa. Astean bi egun barurtzen ditut, eta nere ontasun guzietarik hamarrena emaiten dut. »

« Zerga-biltzalea aldiz urrundik zagon eta etzen ausartatzen begien goititzerat ere; bulharra joz erraiten zuen : « Nere Jainkoa, urrikal zite nizan bekhatorosaz. »

« Eta erraiten dautzuet, hau barkamenduarekin itzuli zen etcherat, bertzea ez; ezen nork ere bere burua goresten baitu, hura aphaldua izanen da, eta nork ere bere burua gutiesten baitu, hura goretsia izanen da. »

48. — Ezkontza ezin hautsizkoa dela

Farisau batzu jin zitzaizkon Jesusi, behar zutela atcheman, eta galdatu zioten : « Gizon bati haizu othe zaio bere andrearen

haizatzea edozoin estakuruz? » Ihardetsi zioten : « Ez duzue bada irakurri Jainkoak hastapenean gizon bat eta emazte bat kreaktu zituela, eta erran ere zuela : Gizonak bere aitetamak utziko ditu eta emazteari estekatuko; eta biga izanen dira haragi bakharrean? *Gizonak ez dezala bada berech Jainkoak bat egin duena.* ».

49. — Haur chumeak

Orduan haur chume batzu ekharri ziozkaten, othoi hunki zitzan; bainan d'zipuluek ohiltzen zituzten idorki. Jesusi atsegabe handia egin zion horren ikhusteak eta erran zioten : « *Utz-kitzue haur ttipiak nere ganat jin ditela, eta ez zaitzuela debeka :* ezen Jainkoaren erresuma hauien idurikoen dateke. » Gero, besarkatzen zituen eta eskua hedatuz benedikatzen.

50. — Mahastiko langileak

« Zeruko erresumak iduri du aita familiako bat, goizean goizik langile-keta athe-

ratu zena bere mahastiko. Denario bat egūneko hitz-harturik langilekin, mahastirat igorri zituen.

Bederatzi orenetan berriz ere atherarik bertze batzu ikhusi zituen plazaren erdian deus egin gabe egoki, eta erran zioten : « Zoazte zuek ere nere mahastirat, eta hel-tzen zaitzuen emanen dautzuet. » Joan ziren. Eguerditan leta aratsaldeko hirua irian ere athera zen, eta hala-hala egin zuen. Gero seietan ilkhi zen, eta bertze langile batzu kausiturik erran zioten : « Zertako zaudezte hola goizetik arats deus egin gabe? » Ihardetsi zioten : « Nehork ez gituelakotz laneko galdegin. » Eta igorri zituen, erranez : « Zoazte zuek ere nere mahastirat. »

Arastu zelarik, mahastizainak erran zion bere muthil-nausiari : langileak bil-zkitzu eta emozute beren irabazia azkenetarik hasirik lehenetaraino. » Sei orenetakoek hurbildurik izan zuten denario bedera. Bertzek jin arau uste zuten gehiago ukanen zutela baina ez zioten eman heieri ere denario

bana baizik. Eta hura hartzearekin, murmurikan ari zireñ aita-familiakoari buruz, erranez : « Azken hauk oren bat baizik ez dira lanean egon, eta guk bezenbat izaiten dute, jasan dugularik guk egun osoaren beroa eta nekhea! »

Harek aldiz ihardetsi zion heietarik bati. « Adichkidea, ez dautzut zuzen kontrakorik egiten. Etzirea nerekin denario batez hitz hartua? Har-azu heldu zaitzuna, eta zoazi. Nahi diot nik azken huni zuri bezenbat eman. Ez niza haizu nahi dutanaren egiterat? Ala bekhaizti zaizkit, zeren ona nizan? *Hola izanen dira azkenak lehen, eta lehenak azken;* ezen deituak hainitz dira, hautatuak aldiz guti. »

51. — **Jesus aitzinetik bere Pasioniaz mintzo**

Jesusek hamabiak bildu zituen eta erran zioten : « Huna non johan giren Jerusalemerat eta giza-semeaz profetek erranak oro orai gerthatzerat doatzi. Aphez-nausi eta Eskribaueri salduko dute eta heiek hilaraziko, paganoen eskuetarat emanen dute

eskarniatuko, azotatuko, thustatuko ; eta jo andoan kurutze bati josiko dute, eta hiletarik phiztuko da hirurgarren egunean.»

Bainan apostoluek ez zuten deusik konprenitzen : hitz hoik michterio batzu zitzaizkoten, ezin argituzkoak.

52. — Itsu Jerikotarra

Jesus Jerikorat hurbiltzen ari zelarik, itsu bat bide bazterrean jarria zen, orori eske : jendetzea iragaiten aditurik galdegin zuen, zer zen bada holakorik. Erran zioten Nazaretheko Jesus zela, eta berehala oihuz hasi zen : « *Jesus Dabiden Semea, urrikal zakikit!* »

Jesus baratu zen eta gizona ereman-arazi zuen. Itsua hurbildua zuelarik, galdatu zion : « Zer nahi duzu nik egin dezazutan? » Itsuak aldiz : « Jauna egizu, ikhus dezan » Jesusek iratchiki zuen : « Ikhus-azu, zure fedeak salbatu zitu, »

Ordu berean argitu zen itsua, eta jarraiki zitzaion, Jainkoa goresten zuela. Eta jende guzia, hor lekuko, Jainkoaren goresten ari zen hura ere.

ASTE HANDIA

53. — Jerusalemen sartzea

Jerusalemi hurbil gerthatu zenean. Olibetako mendiaren oinetan, Jesusek bi dizipulu igorri zituen, erranez : « Zoazte hor aitzinean duzuen herrichka hortarat. Atche-manen duzue astagna bat eta astokume bat harekin. Deslot zatzue eta ekhar hunat. Eta nehork deusik erraiten badautzue, errozue Jaunak behar dituela, eta berehala utziko dauzkitzue. »

Dizipuluak joan ziren eta Jesusek manatu bezala egin zuten. Astagna bere umearekin ekharririk, beren soinekoez estali zituzten, eta jar-arazi zuten gainean. Populuak ere bere jauntziak bidean hedatu zituen ; bertze batzuek zuhaitzetarik aldachkak hautsir'k barreatzen zituzten eta berduratzen :

eta jendek aitzinetik eta gibeletik laguntzen zuten, oihuka : « *Agur, Dabiden Semea ! Benedikatua izan bedi Jainkoaren izenean ethortzen zaikuna! Gora zeru goretaraino!* »

54. — Ezteietako bazkaria

Jesusek berriz ere alegiak erran zituen eta bereziki hau : « Zeruko erresuma iduri du bere semeari ezteiak egin ziozkan erregea. Hunek gomitatuen bilha igorri zituen bere sehiak eta gomitatuek ez zuten joan nahi izan.

Bertze sehi batzu igorri zituen eta erran zioten : « Errozuete gomitatueri : Bazkaria egina da, nere idiak eta bertze gizendu nituenak hilak ditut ; behar direnak oro aphainduak dauzkat ; zathozte ezteietarat. »

Bainan hauiek ez zioten kasu egin, eta joan ziren, nor bere landetcherat, nor bere salerospenetararat ; bertze batzuek sehiak harturik, itsuski laidostatu zituzten eta hil.

Erregeak jakin zuelarik, hasarretu zen eta soldadoak igorririk, hiltzale horiek sar-

raski-arazi zituen eta heien hiria erre-arazi. Orduan sehieri erran zioten : « Ezteietako bazkaria aphaindua da, bainan gomit zirenak ez dira gai agertu. Zoazte bada kurutchabidetarat, eta aurkhituko ditutzuenak oro, othoitz-aitzue ezteietarako. » Schiak joan ziren karriketari barna eta atchewan arau, denak, on ala gaichto bildu zituzten, eta aphairu-lekua bazkaltiarrez bethe zen.

Erregea, mahainean zirenen ikhusterat sarturik, oharatu zen gizon batek ez zuela ezteietako soinekorik; eta erran zion : « Adichkidea, nola ethorri zira hunat, zure ezteietako jauntzirik gabe ? » eta ichilichila egon zitzaion gizona. Orduan erregeak erran zioten sehieri : « Oin-eskuak estekaturik, aurdikazue kanpoko ilhunbetarat. Han izanen dira nigarrak eta hortz-karraskak. Ezen deituak hainitz dira, hautetsiak aldiz guti. »

55. — Manamendu nausia

Lege-irakusle zen Farisau batek Jesusi galde hau egin zion, atchewanen zuelakoan :

« Jauna, zoin da legeko manamendurik handiena ! »

Jesusek ihardetsi zion : « Zure Jainko Jauna maithatuko duzu zure bihotz guziaz, arima guziaz, gogo guziaz. Hori da manamenduetan handiena eta lehena. Bainan, huna bigarren bat lehenaren idurikoa: Zure laguna zure burua bezala maithatuko duzu. *Lege guzia eta profeten erranak oro bi manamendu hoitan bilduak dira.* »

56. — Farisaueri gaizkika

Populuari eta dizipulueri mintzo zen batez, Jesusek erran zioten : « Eskribauak ta Farisauak Moisesen predikalkian jarriak dira : egizkitzue bada heiek erranak oro, bainan, ez egin heiek egiten dutenik. Ezen erraiten ba, bainan ez dute egiten. Zama pisu ezin ekharrizkoak moldaturik bertzen bizkarrerat emaiten dituzte, eta berek erhipuntaz ere ez dituzte higitu nahi.

« Zorigaitz zueri, Eskribau eta Farisauak, zeren hil-hobi zurituak bezala baitzirezte : kanpotik ba ederrak dira gizonen begientzat,

barnea ordean hil hezurrez eta usteldura mota guziez bethea dute. Hala zuek ere jende chuchenak zirezte gizonen begientzat, bainan barnea gezurrez eta gaichtakeriaz bethea duzue.

« Igorriko dauzkitzuet profetak, irakusle zuhur eta jakintsunak. Hil-araziko ditutzue eta zonbait kurutzean ezarriko; bertze batzuen sinagogetan azotatuko ditutzue eta lasterkatuko herriz-herri : hola zuen gainerat erori da lurrean ichuri den hobengabeen odol guzia, Abel zintzoaren odoletik hasirik eta Zakarias Barakiasen Semeareneraino, hau temploaren eta aldarearen artean hil baituzue. Erraiten dautzuet egiazki, gaitz guziak jautsiko dira jendeki hunen gainerat.

« Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta igortzen zaizkizunak harrikatzen ditutzuna, zonbat aldiz nahi izan ditut zure haurrak elgarretaratu, oiloak bere chitoak hegal-pean biltzen dituen bezala, eta zuk ez duzu nahi izan ! Horra bada zuen etchea hutsik egonen zaitzuela. Ezen erraiten dau-

zuet, ez nuzue ikhusiko hitz hau erranen du-
zuen artean : Benedikatua izan bedi Jain-
koaren izenean heldu dena. »

37. — Talenduak

« Gizon batek, bidaia luze bat egitera-
koan, bere sehiak deitu zituen eta eman
ziozkaten bere ontasunak : bati, bortz ta-
lendu, biga bertzeari, hirugarrenari bat,
bakotchari bere jeinuaren arabera, eta be-
rehala joan zen.

Bortz talendu ukhan zituenak baliatu zi-
tuen eta bertze bortz irabazi. Hala-hala bie-
kilakoak bertze biga irabazi zituen. Bat
baizik ukhan ez zuenak aldiz, lurrean zilo
bat egin-eta, han gorde zuen nausiaren
dirua.

Denboraren buruan, sehi horien nausia
itzuli zen eta konduak galdegin ziozkaten.
Bortz talendu ukhan zituenak bertze bortz
eskaini ziozkan, erranez : « Jauna, bortz
eman dauzkidatzu, huna irabazi ditudan
bertze bortz. » Nausiak erran zion : « Eder-

ki, sehi on eta zintzoa : egiteko ttipiago batean hain jarraikia izan zirenaz geroz, handiagotan ezarriko zitut. Sar zite zure Jaunaren bozkarioan. »

Talendu baxharra ukhan zuenaren aldi izan zelarik, erran zuen : « Jauna, badakit gizon idorra zirela; erain ez duzun lekuan uzta egiten duzu eta barreatu ez duzun tokian berdin biltzen. Horra zertako, zure beldurrez, talendua ehortzi dutan. Orizu, horra heldu zaitzuna. » Nausiak ihardetsi zion : « Sehi gaichto eta alferra, bazinakien erain ez dutan lekuan uzta egiten dutala eta berdin biltzen dutala barreatu ez dutan lekuan ; behar zinuen bada nere dirua banketche batean ezarri, eta nik, etcherat-eta, neurea atherako nuen bere irabaziarekin.

Khen-zozue bada talendu hori eta hamar dituenari eman. Ezen duenari emanen zaio eta aberastuko da; ez duenari aldiz, bere alegiazko ontasunak ere khenduko diozkate. Muthil alfer hau, aurdik-azue kanpoko ilhunbetarat. Han izanen dira nigarrak eta hortz-karraškak. »

58. — Hamar birjinak

« Zeruko erresumak iduri izanen ditu hamar birjina, beren lanpak harturik, ezkont-berrien biderat joan zirenak. Heietarik bortz erhoak ziren, eta bortz zuhurak. Bortz erhoek lanpak hartu zituzten, baina ez oliorik berekin. Zuhurrek aldiz lanpekin batean olio-untziak hartu zituzten.

Eta nola ezkont-berriek berantzen baitzuten, denak logaletu eta lokhartu ziren. Baina gauerditan oihu bat aditu zen : « Huna ezkont-berria nun heldu den, zoazkiote biderat. » Orduan birjina hek guziak jeiki ziren eta beren krisailuak adelatu zituzten. Eta erhoek erran zioten zuhurreri : « Emaguzue zuen oliotik, gure krisailuak hiltzerat doatzi. » Zuhurrek ihardetsi zuten : « Beldurrez-eta ez dadin aski izan zuen eta guretako, hobe duzue saltegirat joatea eta han zuentzat erostea. »

Erosterat joan ziren artean, ezkont-berria jin zen, eta prest zirenak harekin sartu ziren ezteietarat eta athea hetsi zen. Azke-

nean bertze birjinak ere ethorri ziren noiz-
bait, eta erraiten zuten : « Jauna, Jauna,
idek diezaguzu ! » Ihardetsi zioten : « Egiaz-
ki erraiten dautzuet : ez zituztet ezagutzen.
*Egon beraz atzarririk, ez dakizuenaz geroz
ez eguna, ez ordua. »*

59. — Azken jujamendua

« Giza-Semea bere handitasunean jinen
delarik eta angeru guziak harekin, orduan
bere loriazko jarlekuan jarriko da. Jendaki
guziak haren aitzinean bilduko dira, eta
batzuek bertzen ganik berechiko ditu, art-
zainak bere ardiak akherretarik berechten
dituen bezala. Ardiak eskuin emanen ditu
eta akherrak ezker.

Orduan erregeak erranen diote eskuine-
koeri : *Zathozte, nere Aitaren benedikatuak,
har-azue munduaren hastapenetik aphain-
du izan zaitzuen erresuma. Ezen glose izan
niz, eta jaterat eman dautazue; egarri, eta
eman dautazue edaterat; arrotza nintzen, eta
eman dautazue ostatu; buluzia, eta jauntzi*

nuzue; eri, eta ethorri zatzaizkitet ikhusterat; preso, eta nere ganat heldu izan zirezte »

Onek ihardetsiko diote : « Bainan, Jau-na, noiz othe zitugu goserik ikhusi, jaterat eman baitautzugu, ala egarririk, eman baitautzugu edaterat ? Noiz ikhusi zitugu arrotz, eman baitautzugu ostatu, ala soinekorik gabe, jauntzi baitzitugu ? » Eta erregeak ihardesiko diote : « Egiaz erraiten dautzuet, *nere anaiarik chumeeneri gauza horiek egin ditutzuen aldi oroz, nihauri egin dautzue.* »

Denbora berean, erranen diote ezkerrekoeri : « *Zoazte, madarikatuak, nitarik urrun, debruarentzat eta haren aingeruentzat aphaindua izan den bethiereko surat.* Ezen, gose izan niz eta ez dautazue jaterat eman; egarri, eta ez dautazue eman edaterat; arrotza nintzen, eta ez dautazue eman ostatu; buluzia, eta ez nuzue jauntzi; eri edo preso, eta ez zatzaizkitet ikhusterat jin. »

Erranen diote heiek ere : « Bainan, Jau-na, noiz ikhusi zitugu gose ala egarririk,

etcherik ala soinekorik gabe, eri ala preso, batere lagundu gabe utzi baitzitugu ? »

Orduan ihardetsiko diote : « Egiazki diozuet, nere chumeetarik edozoini gauza horiek egin gabe utzi ditutzuen aldi oroz, niri egin gabe utzi ditutzue. » Eta hauk bethiereko oinhazeetarat joanen dira, onak aldiz bethiereko bizirat. »

ORTZEGUN SAINDU

60. — Judasen saldukeria

Pazko deitu jai-eguna hurbiltzen ari zen eta aphez-nausiak eskribauekin bazabiltzan nola hilaraziko zuten Jesus; bainan populuaren beldur ziren. Orduan hamabietarik batek, Iskariot-eko Judasek, aphezen ganat joanik, erran zioten : « Zer emanen dautazue, eta zuen eskuetarat bilduko dut ? » Hitz-eman ziozkaten hogoita-hamar zilharpeza; eta geroztik paradaren beha zag'on bere nausiaren etsaieri emaiteko.

61. — Afaria

Beraz, altchagarri gabeko lehen egunean, dizipuluak Jesusi hertsatu zitzaizkon: « Nun nahi duzu Pazkoko bazkaria aphain dezagun ? » Ihardetsi zioten : « Zoazte hiriko aiphatu dautzuetan gizonaren ganat eta errozue : Nausiak hitz hauk igortzen daukitzu : Denborak hurbil ditut : Pazkoak zure etchean eginen ditugu nere dizipuluek eta nik. » Dizipuluak joan ziren eta Jesusek erran bezala Pazkoko aphairua aphaindu zuten.

Aratsean Jesus mahainean jarri zen bere hamabi apostoluekin. Eta jatean, erran zuen : « Egiazki diotzuet, zuetarik batek salduko nu. » Harritu ziren, eta zoin bere alde galdeka hasi zitzaizkon : « Ni othe niz, Jauna ? » Ihardetsi zuen: « Nerekin jaten ariden batek salduko nu. Gizonaren semea segurki, hartaz izkiriatura den bezala, badoa: bainan hanbat gaichto Gizonaren Semea salduko duenarentzat : hobe zukeen ez halitz egundaino sortu. »

62. — Zangoen garbitzea

Orduan Jesusek, mahaina utzirik, soinekoa khendu zuen, oihal bat hartu eta gerrian ezarri. Gero ura untzi baterat ichuri zuen eta hasi zitzaioten dizipuluari oinen garbitzen, bere gerriko oihalaz chukatzen zituelarik.

Ethorri zen bada Petriren aitzinerat, eta hunek erran zion : « Zuk, Jauna, niri zangoak garbi? » Jesusek ihardetsi zion : « Egiten dutan gauza hau ez duzue orai konprenitzen, baina gerochago konprenituko duzue. » Petrik berriz ere : « Ez dauzkidatzu sekulan zangoak garbituko ! » Jesusek ihardoki zion : « Ez bazituz garbitzen, ez duzu nerekilakorik izanen. » Orduan Petrik erran zion : « Jauna, garbi-zkidatzu ez bakharririk zangoak, baina eskuak ere eta burua. »

Jesusek aldiz : « Berriki mainatu denak ez du oinez bertzerik garbitzearen beharrik, eta bere gorphutz osoa garbia du. Zuek ere garbiak zirezte, ez ordean denak. » Alabainan bazakien nork behar zuen saldu.

Zangoak ikhuzi ondoan, berriz hartu zuen bere soinekoa eta mahainean jarri zen. Erran zioten : « Badakizue zer egin dutan ? Nausi eta Jaun deitzen nuzue, eta chuchen mintzo zirezte : nausi eta jaun izanik ere, zangoak garbitu badauzkitzuet, zuek ere behar ditutzue elgarri garbitu. Ezen *etsen-plua eman dautzuet, zuek ere nik bezala egin dezazuen.* »

63. — Gorphutz saindua

Afariten ari ziren artean, Jesusek ogia hartu zuen, hautsi, eta dizipuluari eman, ziolarik : Har eta jan zazue : *hau da nere gorphutza.* » Gero kalitza harturik, Jainkoari eskerrak bihurtu ziozkan, eta eman zioten, erranez : « Edan zazue denek : *hau da nere odola, testamentu berriko odola, ha'nitzentzat ichuria izanen dena, bekhatuen barkhamendutako.* »

64. — Afariaren bururatzea

Hitz horien ondotik, Jesus atsegabetu zen eta garbiki erran zioten : « Bai, egiazki,

zuetarik batek salduko nu. » Dizipuluak elgarri behaka zauden, nortaz mintzo othe zen. Dizipuluetarik batek, Jesusek maite zuenak burua pausatua zaukan Jesusen buharrari kontra. Petrik kheinu egin zion erranez : « Nortaz mintzo da ? » Hura beraz makhurtu zen Jesusen ganat, ziolarik : « Nor da, Jauna ? » Jesusek ihardetsi zuen : « Ogi busti puska bat eskainen baitiot, hura da. » Eta, ogia bustiturik eman zion Iskarioteko Judasi.

Judasek hartu zuen eta berehala atheratu zen. Gau ilhuna zen. Athera zenean, Jesusek erran zuen : « Nere haurrak, ez niz zuekin egun gutirentzat baizik. *Manamendu berri bat egiten dautzuet : elgar maitha zazue, nik maite izan zituztedan bezala.* Munduak ezagutuko du nerekilakoak zireztela, elgar maite balinbaduzue. »

Petrik erran zion : « Jauna, norat zoazi ? » Jesusek ihardetsi zuen : « Noan lekura ez zizaizkit orai jarraikitzen ahal ; bainan egun batez jinen zira. » Petrik erran zion : « Jauna, zertako ez orai berean ? Bizia emanen

dut zuretzat. » Jesusek ihardetsi zuen : « Bizia neretzat ? Egiazki, egiazki erraiten dautzut : *oilharrak kantatu baino lehen, hiru aldiz ukhatuko nuzu.* » Petrik aldiz : « Ez, zurekin hil behar banu ere, ez zitut nik ukhatuko ». Dizipulu guziek berdin erranzuten, eta esker onezko kantika eman ondolan, Olibetako mendirat buruz abiatu ziren.

65. — Olibetako mendirakoan

« Ni egiazko mahats-ondoa niz eta nere Aita da mahastizaina. Nitán fruiturik ekhartzen ez duen edozoin adar khenduko du ; eta ekhartzen duena ere mochtuko du, oraino gehiago eman dezon. Bai, zuek garbi zirezte, ochtion erran bezala. Zaudezte nitán, eta ni zuetan.

« Nola adarrak ez baidezake deus ere eman, ez badago aihenari atchikia, berdin zuek ere, ez bazirezte niri atchikiak egoiten. *Ni aihena niz, zuek adarrak; ni baithan dagonak eta ni hura baithan, harek hainitz ekharriko du. Bainan ni gabe ez duzue deu-*

sik egiten ahal. Nitán ez dagona, adar ez-deus baten pare aurdikia izanen da ; eta eihartu denean, bilduko dute, surat emanen eta erreko.

« Baldin nere baithan egoiten bazirezte, eta nere hitzak zuen baithan, nahi duzuená galdaturik ere, ardietsiko duzue. Ongi nasaia egiten baduzue, eta egiten bazirezte nere dizipulu, horrek du nere Aita loriatuko. Ni Aitak maithatu nuen bezala, nik ere zuek maithatu zituztet; zaudezte nere maithasunean. *Nere manamenduak begiratzén baditutzue, nere maithasunean egonen zirezte;* ezen, hala-hala, nik ere nere Aitaren manamenduak begiratu ditut, eta haren maithasunean nago. »

66. — Othoitz handia

Horiek erran ondoan, Jesusek begiak al-tchatu zituen zerurat, ziolarik : « Nere Aita, ordua da; Semea gorets-araz ezazu, zure Semeak ere goretsaraz zitzan. Eta nola eman baitiozu eskua gizon guzien gainean,

zuk eman diozkatzun guziori harek emanen diote bethiereko bizitzea. *Eta hau da bethiereko bizitzea : ezagut zitzaten zu, egiazko Jainko baxharra eta Jesu-Kristo zuk igorri izan duzuna.*

« Goretz-arazi zitut nik lurraren gainean eta egin dut eman zinautan egitekoa. Ordainez zuk orai goretz-araz nezazu zure baithan, Aita, mundua hasi baino lehen, zure baithan izan dutan zorion hartaz. Irakatsi diotet zure izena mundutik berechi dauzkitatzun gizoneri. Heientzat egiten dautzut othoitz, ez heientzat baxharrik, bainan oraino heien hitzaren bidez nitan sinetsi behar dutenentzat. »

JESUSEN PAIRUA

67. — Olibetako baratzean

Jesus joan zen bada bere dizipuluekin Gethzemani deitu lekhu batetarat, eta erran zioten : « Zaudezte hemen, ni horrat noalarik othoitz egiterat. » Eta berekin harturik Petri eta Zebede-ren bi semeak, hasi zi-

tzaion bihotza histen eta ilhuntzen. Orduan erran zioten : « Nere arima hiltzerainokoan ilhundua da, geldi zitezte hemen eta egon atzarririk nerekin. » Eta pochi bat urrundurik ahuspekatu zen eta othoitzean hasi : « *Nere Aita, kalitza hau nere ganik urrundadila ahal bada; bainan halere egin dadila, ez nik nahi dutan bezala, bainan zuk nahi duzun bezala. »*

Gero itzuli zen bere dizipuluen ganat. Lo atchewan zituen eta erran zion Petriri : « Zer, ezin egon zirezte oren bat nerekin atzarririk. *Egon errie eta egizue othoitz, tentazionetan ez sartzeko; ezen gogoa ernea da, bainan haragia ahul. »* Berriz ere urrundu zen eta othoitz hau egin zuen : « *Nere Aita, ez balinbadut kalitza hau eden gabe uzten ahal, egin bedi zure nahia. »* Gero itzuli zen eta lokartuak aurkhitu zituen; eta berriz ere urrundurik, hirugarren aldikotz othoitz bera egin zuen. Orduan jin zen bere dizipuluetarat eta erran zioten : « Orain lo egizue eta pausa zitezte. Hurbildua da tenorea. gizonaren semea bekhatorosen es-

kuetan emana izanen baita... (Bueni zutezte,, goazen : nere saltzalea hor berean da. »

68. — Etsaiek hartzen dute

Oraino mintzo zelarik, Judas ethorri zen, eta harekin gizon saldo bat, ezpatez eta makhilez harmatuak, aphez-nausiek eta herriko zaharrek igorriak. Jesus saltzen zuenak haren ezagut-arazteko erran zioten : « Zoïni ere musu emanen baitiot, eta hura da; harazue. » Berehala Jesusi hurbildu zitzaion, erranez : « Agur, Jauna, » eta musu eman zion. Jesusek ihardetsi zion « Adichkidea, zertarat jina zira ? Gizonaren semea musu batez saltzen duzu ! » Bainan aitzinatu ziren, eta eskuak gainerat emanik, hartu zuten. Orduan dizipulu guziek hor utzi zuten eta ihesi joan ziren.

69. — Jesus Annaren aitzinean

Jesus hartu zutenek lehenik Anna, Kaifasen aita-ginarrebaren ganat ereman zuten eta hunek galdegin zion bere dizipuluen eta irakaspenen berri.

Jesusek ihardetsi zion : « Jendeari agerian mintzatu nitzaio, bethi sinagogan eta temploan eman ditut nere irakaspenak eta ez dut hitzik erran ichilka. Zertako egiten dautazu galde hori ? Galde zozute entzua nute-neri; badakite zer irakatsi dutan. » Orduan Jesusen aldean jarriak zauden soldadoetarik batek mazelako bat eman zion, erranez : « Hola, mintzatzen dea aphez-nausiari ? » Jesusek ihardetsi zuen : « *Gaizki mintzatu baniz, errazu zertan; baina ontsa mintzatu baniz, zertako joiten nuzu?* »

70. — Kaifasen aitzinean

Annak gatheztaturik Kaifas aphez handiaren ganat igorri zuen, eta eskribauak hor ziren zaharrekin bilduak. Petri urrundik jarraikitzen zitzaion ; aphez-handiaren etcherat jin zen, eta hor zagon sehiakin jarria, zer atherako zen hoietarik guzietarik.

Bizkitartean aphez-nausiek eta biltzarrak gezurrezko lekukotasun zerbait bilhatzen zuten, haren hil-arazteko; baina ez zuten

atcheman ahal izan, nahiz lekuko faltsu batzu agertu ziren. Azkenean biga ethorri ziren, erranez : « Gizon horrek erran du : Jainkoaren tenploa desegiten ahal dut eta berriz hiru egunez eraikitzen ahal. » Jeiki zen Aphez-nausia eta erran zion : « Ez duzu deusik ihardesten lekuko horien erraneri ? » Bainan Jesus ichilik zagon.

Aphez-nausiak galdegin zion : « Jainko biziaren izenean manatzen dautzut : *erraguzu Kristo, Jainkoaren semea zirenetz.* » Jesusek ihardetsi zuen : « *Diozun bezala da; eta nik erraiten dautzuet : Ikusiko duzue oraino gizonaren semea Jainko guziz ahaltsuaren eskuinean jarririk, zeruko hedoiengainean heldu dela.* » Orduan Aphez handiak urratu zituen bere soinekoak erranez : « Laido egin du Jainkoari; zer behar dugu gehiagoko lekukorik? Aditu duzue burhoa; zer zaitzue? » Ihardetsi zioten : « Hiltzea merezi du »

Orduan thu egin zioten begitarterat, ukabilka jo zuten; bertze batzuek beharrondo-

koka ari zitzaizkon erranez : « Kristo, asma zak nork jo huen ? »

71. — Jondoni Petriren hutsa

Anartean Petri jarria zagon ezkaratzean; eta neskato bat hurbildu zitzaion erranez : « Zu ere Jesus Galileakoarekin zinen. » Bainan harek ororen aitzinean ukhatu zuen : « Ez dakit zer mintzo ziren. » Atheratzerat zoalarik, ohartu zitzaion bertze neskato bat eta hor zireneri erran zioten : « Hori ere Nazaretheko Jesusekilakoa zen. » Berriz ere ukhatu zuen eta zin eginez erran zuen : « Nik ez dut gizon hori ezagutzen. » Handik laster, hor zirenak jin ziren Petriren ondorat eta erran zioten : « Egiazki, zu ere heietarik zira; ezen zure mintzaireak berak salhatzen zitu. » Hasi zen orduan zinez eta arneguz, ezetz, ez zuela ezagutzen gizon hura. Hainbertzenarekin oilharrak kantatu zuen, eta Petri orhoitu zen Jesusen hitzaz : « Oilharrak kantatu baino lehen, hiru aldiz ukhatuko nuzu » ; eta atheraturik, nigar egin zuen khireski.

72. — Judasen etsimendua

Bainan Judas, bere nausia saldu-eta, ikhusirik Jesus kondenatzerat zeramatela, urrikitu zen, eta aphez-nausieri hogoi-ta hamar zilharrak gibelat ekharri ziozkaten, erranez : « Hoben dut, gaizki egin ez du-naren odola saldurik. » Bainan erran zioten : « Zer doakigu guri ? Zure egitekoa da. » Eta hura, dirua tenploan aurdikirik, ilki zen eta bere burua urkhatu zuen.

73. — Pilatusen aitzinean

Goizalderat, aphez-nausiek eta herriko zaharrek elgar aditu zuten Jesus behar zutela hil-arazi. Eta estekaturik ereman zuten eta Pentzio Pilatus gobernadorearen eskuetan ezarri; bainan ez ziren haren auzitegian sartu. bekhatu baitzitaioten eta nahi baitzuten Pazkoa jan.

Pilatus ethorri zen bada heien aitzinerat eta galdatu zioten : « Zer hoben emaiten duzue gizon hunen gain? » Heiek aldiz :

« Ez balitz gaizkiegilea, ez ginautzun hunat ekharriko. » Pilatusek erran zioten : « Harazue zuihauiek eta zuen legearen arabera juja zazue. » Bainan Juduek ihardoki zuten : « Ez dugu nehoren hil-arazteko eskurik. »

Pilatus bere auzitegian sartu zen eta Jesus ekhar-arazirik erran zion : « Juduen erregea othe zira ? » Jesusek ihardetsi zion : « *Nere erresuma ez da lur huntakoa. Nere erresuma lur huntakoa balitz, nere gudulariek begira nezakete Juduen eskuetarik. Bainan nere erresuma ez da hemengoa.* » Orduan Pilatusek erran zion : « Errege zira beraz ? » Jesusek : « Diozun bezala, errege niz. *Egiaren lekhukoa izaiteko niz sortu eta mundu huntarat ethorri. Nor ere egiaren aldekoa baita, eta harek aditzen nu.* » Pilatusek erran zion : « Zer da egia ? » Eta hori erran-eta, Juduen ganat itzuli zen eta aithortu zioten : « Ez dut deus hobenik kausitzen gizon hortan. »

Orduan aphez-nausiek, haren hersatzeko, erran zuten : « Jendea asaldatzen ari du, bere irakaspenak hedatzen dituela Judu-herri guzian gaindi, Galileatik hunaraino. »

74. — **Jesus Herodesen aitzinean**

Pilatusek aditu zuenean Galilea aiphatzen, Jesus Herodesi igorri zion, hau egun hetan Jerusalemen izaki-eta. Herodes bozkariatu zen Jesusen ikhusteaz : ezen aspaldion ikhusi nahia zuen, mirakulu bat edo bertze eginen ziolakoan. Galde zonbait egin ziozkan; bainan Jesusek ez zion hitzik ihardetsi. Herodesek eta harekilakoek laidostatu zuten, eta, soineko churi bat eman-arazirik bizkarrean, nausatu edo trufatu zuen eta Pilatusen ganat berriz igorri. Eta egun hartan, lehengo etsaiak, Herodes eta Pilatus adichkidetu ziren.

75. — **Berriz Pilatusekin**

Pilatusek, aphezak, aitzindariak eta jendea bilkurik, erran zioten : « Gizon hau ekharri dautazue, baizik-eta jendea jazararazten duela; zuen aitzinean egin diozkat galdeak eta *ikhusten* *duzue* ez *diotala deus hobenik aurkhitzen*. Herodesek ere ez dio *deusik aurkhitu*. Beraz azotaraziko dut eta joaiterat utziko. »

Bainan Pazkoetan gobernadoreak presoner bat uzten ohi baitzuen joan zadin, galdegin zioten : « Zoin nahi duzue utz diezazuetan, Barrabas ala Jesus? » Denek betan oihu egin zuten : « Hau hil-araz-azu eta emaguzu Barrabas. » Alta azken hau norbait hilik eta Gobernuari jazarririk preso altchatua izan zen. Pilatus, Jesus nahi baitzuen salbatu, mintzatu zitzaioten berriz ere, bainan oihuka ari ziren : « *Kurutzefika zazu, kurutzefika zazu!* » Hirugarren aldikotz, Pilatussek erran zuen : « Zer gaizki egin du? Ez diot heriotzea merezi duen gaichtakeriarik kausitzen. Horra, gaztigu bat eman-araziko diot, eta igorriko dut. »

76. — Azotatzea

Orduan Pilatussek manatu zuen Jesus harzezaten eta azotea eman zezoten. Soldadoek elhorrizko korona bat eginik buruan ezarri zioten, eta jauntzi eskarlatazko kapa bat ; gero hurbiltzen zitzaizkon, errañez : « Agur, Juduen erregea ! » ; eta joiten zuten. Pila-

tus ilkhi zen berriz ere, eta erran zioten Judueri : « Huna ekhartzen dautzuetala, jakin dezazuen bada ez dutala haren baithan hobenik atchemaiten. »

Jesus agertu zen beraz elhorrizko korona buruan eta eskarlata soinean; eta Pilatusek erran zioten « *Horra gizona!* » Aphez-nausiek eta heien sehiek, ikhusi orduko, oihu egin zuten : « Kurutzefika-zazu, kurutzefika-zazu ! » Pilatusek aldiz : « Har-azue zuihauiek eta kurutzefika zazue ; ezen nik ez diot gaichtakeriarik aurkhitzen. » Juduek ihardetsi zioten : « Lege bat badugu, eta lege horren arabera heriotzea hartze du zeren bere burua Jainkotsat eman baitu. »

Pilatus, hitz horiek aditzearekin, gehiago beldurtu zen, eta auzitegian sarturik erran zion Jesusi : « Nungoa zira ? » Bainan Jesusek ez zion ihardetsi. Pilatusek erran zion : « Zertako ez duzu ihardesten ? Ez dakizu bada zure kurutzefikatzeko eskua badutala, bai eta zure salbatzekoa ? » Jesusek ihardetsi zion : « *Nere gainean eskurik ez zinu-*

ke, gaineratik ez balautzute eman. Horra zergatik hoben handiagoa duen ni eman nuenak. »

77. — **Jesus Kondenatua**

Ordutik Pilatusek nahiko zuen salbatu ; bainan Juduak oihuka lotu ziren : « Gizon hori uzten baduzu, ez zira gehiago Zesarren adichkidea ; ezen erregetzat hartua izan nahi dena Zesarren etsaia da. » Pilatusek ilkhia-razi zuen Jesus, eta bere alkian jarririk, erran zioten Judueri : « Horra zuen erregea ! » Bainan orroaz hasi ziren : « *Hil dadila ! Hil dadila ! Kurutzefika-zazu !* » — « Behar duta zuen erregea kurutzean ezarri ? » zioten galdegin Pilatusek. Ihardetsi zioten : « Ez dugu Zesarrez bertze erregerik ezagutzen, guk. »

Orduan, ikusi-eta ez zela probetchurik eta nahasmendua bethi handituz zoala, Pilatusek ura ekharrarazi zuen, eta ororen aitzinean bere eskuak garbitu zituen, ziolarik : « Ez niz hobendun justu hunen odolaz ; zuen gain uzten dut. » Bainan jende guziak

erran zuen : « *Haren odola eror bedi gure gainerat.* » Hortan kurutzefikatzerat eman zioten

78. — Galbarioko bidean

Hiltzerat zeramatelarik, Zireneko Simun, landatik heldu zen gizon bat hartu zuten, eta kurutzea bizkarrerat eman zioten. Jesusekin ekhar zezan. Jesusi jende hainitz jarraitzen zitzaion, eta emazte batzuek buharra joiten zuten nigarrez; heien alderat itzulirik, Jesusek erran zioten : « *Jerusalemeko alabak, ez nigar egin nere gatik, baina bai zuen eta zuen haurren gatik.* »

Bi gaichtagin ere bazeramatzaten, harekin batean hil-araztekoak.

79. — Kurutzean itzatzea

Galbarioa erraiten dioten tokirat heldu zirenean, Jesus Kurutzean ezarri zuten bi ohoinekin, bata eskuin zuela eta bertzea ezker. Han eskaini zioten ozpinarekin nahasturikako arnoa; bainan jastatu ondoan,

ez zuen edan nahi izan. Bizkitartean Jesusek erraiten zuen : « *Aita, barkha zozute, ezen ez dakite zer ari diren.* »

Soldadoek, Jesus kurutzean eman-eta, haren soinekoak beren artean berezi zituzten. Hartu zuten halaber soin gainekoa, eta nola josturarik gabekoa baitzen, gainetik beherera batean ehoa, erran zuten elgarri : « Ez dezagun urra, baina eman dezagun zorthe, norentzat izanen den »; hola bethe zen Liburu sainduen errana : « Nere soinekoak zathikatu dituzte beren artean, eta nere jakaz chorte egin dute. » Horra bada zer egin zuten soldadoek. Gero jarri ziren haren zain.

Eta haren buruaz gorago hitz hauk ezarri zituzten : NAZARETHEKO JESUS JUDUEN ERREGEA.

Jende chehea hor zagon hari beha eta herriko buruzagiek bertzeekin batean trufatzen zuten, ziotelarik : « Bertzen bizia begiratzen eta, berea begira dezala, Kristo balinbada. »

80. — **Laphur ona**

Ohoinetarik batek ere bere kurutzetik laidoak egiten ziozkan Jesusi eta erraiten zuen : « Kristo balinbahiz, salba hadi eta gu hirekin. » Bainan bertzeak ichil-arazten zuen, ihardesten ziola : « Ez hiza Jainkoaren beldur, urkhabe berean hiltzen ari hizen orduan ! Guk gure gaizkiegineri doazkoten oinhazeak jasaiten ditiagu; hunek aldiz ez dik deus gaizkirik egin. » Gero erran zion Jesusi : « Jauna, orhoit zite nitaz, zure erresuman izanen zirelarik. » Jesusek ihardetsi zion : « Egiazki erraiten dautzut, *egun berean nerekin sartuko zira Parabi-suan.* »

81. — **Andre-dena Maria**

Anartean Jesusen ama eta haren amaren ahizpa kurutzearen oinetan ziren Maria Madalenarekin. Jesusek bere ama ikhusi zue-nean eta haren aldean maite zuen dizipulua, erran zion amari : « *Emaztea, horra zure*

semea. » Gero erran zion dizipuluari :
« *Horra zure ama.* » Eta geroztik dizipuluak
bere etchean hartu zuen.

82. — Jesusen hiltzea

Eguerditik hiru orenak artino, ilhunbeak
hedatu ziren lur guzian gaindi; eta hiru
orenetan Jesusek oihu egin zuen : « *Eli, Eli,
lamma sabacthani* »; erran nahi baita :
« *Nere Jainkoa, nere Jainkoa, zertako utzi
nuzu ?* » Hor zirenetarik zonbaitek aditu
zuten eta erran : « *Horra Elias deitzen
duela.* »

Gero, Jesusek baitzakien oro bururatzera
zoazila, erran zuen : « *Egarri niz.* » Eta be-
rehala heietarik batek laster eginik belogi
edo esponja bat arno mintuz bethe zuen,
eta seska batean ezarririk, eman zion eda-
terat. Bainan bertzek zioten : « *Utz-azu, eia
bada Elias laguntzerat jinen zaion ?* Orduan
Jesusek, ozpin hartarik hartu ondoan, er-
ran zuen : « *Denak bururatuak dira.* »

Eta ichtantean Jesusek oihu handi bat

egin zuen, ziolarik : « *Aita, zure eskuetan emaiten dut nere arima* »; eta burua aphalturik, azken hatsa aurdiki zuen.

83. — **Jesus hil-eta**

Eta horra nun tenploko oihala bi zathi egin zen, gainetik behereraino urraturik, lurra ikharatu, harriak arraildu, hobiak ideki eta hil zombaiten gorphutzak phiztu; eta, phiztu ondoan, beren hobiak utzirik, hiri saindurat ethorri ziren, askori agertzen zitzaizkotela.

Arte hortan ehuntaria eta harekin zirenak, lur-ikhara eta bertze gerthakariak oro ikhustearekin, izitu ziren eta erran zuten : « *Gizon hori egiazki Jainkoaren Semea zen.* » Jende guziak ere, horien guzien aitzinean, bulharra joz bazoazin etcherat.

Larunbat-bezpera baitzen, larunbatarekin gorphutzak kurutzean ez uzteko, Juduek galdegin zioten Pilatusi, zangoak hauts-araz zietzozten, eta khen-araz zitzan. Soldadoak jin ziren bada eta zangoak hautsi

ziozkaten ohoin bati eta gero bertzeari. Jesusi hurbildurik, ikhusi baitzuten hila zela, ez ziozkaten hari zangoak hautsi; baina soldado-batek sahetsa ideki zion lantza ukaldi batez eta berehala odol eta ur chorta bat athera zitzaion.

84. — **Hobia**

Ilhantzean Arimathiako Josep Pilatusen ganat joan zen eta Jesusen gorphutza galdegin zion, eta Pilatusek eman zion.

Josepek hil-oihal bat erosirik, hartaz inguratu zuen Jesusen gorphutza, kurutzetik khendu ondoan; gero harkaitz batean zilatuzko hobi batean eman zuen, eta harri bat amildu zuen hil-hobiaren sartzeraino.

Biharamunean, aphez-nausiak eta fari-sauak Pilatusen aitzinerat bildu ziren eta erran zioten : « Jauna, gogoratu zaiku enganatzaile horrek bizi zelarik erran zuela : hirugarren egunean phiztuko niz Mana zazu bada haren hobia hiru egunez zain dezaten, beldurrez-eta haren dizipuluek khen

dezaten eta erran dezoten jendeari : Phiztua da. Huntan azken hutsa lehena baino areagoa litake.» Pilatusek ihardetsi zioten : « Hirizainak baditutzue; zoazte, eta nahi duzuen bezala zain zazue. » Hobirat joan ziren, arthoski hetsi zuten, harrian zigiloa ere emanik, eta begiratzailleak ezari zituzten.

PHIZTEA

85. — Lehen agertzea : hobi hutsa

Larunbatetik eta iganderainoko gauean, Maria Madalena eta bertze Maria hil-hobia-
ren ikhusterat joan ziren. Bet-betan lur-
ikhara handi bat egin zen; Jaunaren aingeru bat zerutik jautsi zen harriaren uzkailetzerat eta gainean jarri zen. Haren begitar-
tea chimistaren iduriko zen eta soinekoa elhurraren pareko. Begiratzailleak izituak izan ziren eta hilik bezala gelditu.

Aingeruak, emazteri mintzatuz, erran zioten : « Ez izan beldurrik. Badakit kurutzelikatu duten Jesus haren ondotik zabiltzafela. Ez da hemen, *phiztu da, erran zuen*

bezala. Zathozte, beha zazue nun ezarri zuten gure Nausia. Eta errozue berehala dizipulueri phiztua dela; Galilean zuek baino lehenago izanen da. Han ikhusiko duzue, hitz dautzuet. » Bertan harpetik ilkhi ziren berri horren ekhartzeko dizipulueri.

Petri joan zen Jesusek maite zuen bertze dizipuluarekin eta hil-hobirat abiatu ziren. Biak lasterka bazoazin; bainan bertze dizipulu hura lasterrago eginik, lehen heldu izan zen, eta ukhurtuz hil-mihiseak ikhusi zituen lurtean, bai eta buruko hil-oihala bazter batean plegaturik.

Orduan lehen heldu izan zen dizipulua ere sartu zen : ikhusi zuen eta sinetsi. Gero dizipuluak etcherat itzuli ziren.

86. — Huna Jesus

Bainan Maria chutik zagon hil-hobitik haratago, eta nigarrez ari zen. Urbildurik, ukhurtu zen, hobian behatzeko, eta ikhusi zituen bi aingeru churiz bezi, Jesusen gorphutza eman zuten lekhan, bata buruan,

bertzea oinetan. Erran zioten : « Emaztea, zergatik egiten duzu nigar? » Ihardetsi zioten : « Nere Nausia khendu dutelakotz, eta ez dakit nun ezarri duten. »

Horiek erranik, itzuli zuen burua eta Jesus ikhusi zuen, chutik; bainan ez zakién hura zela. Harek erran zion : « Emaztea, zertako egiten duzu nigar? Noren bilha zabilta? » Ustez-eta baratzezaina zen, ihardoki zuen : « Jauna, zuk ereman balinbaduzu, erradazu nun ezarri duzun, hartzerat joanen niz. » Jesusek erran zion : « Maria! » Itzuli zen eta berak erran zion : « Rabboni », erran nahi baita : *Nausia*.

Jesusek erran zion : « Ez nezazula hunki, ezen ez niz oraino nere Aitaren ganat igana; bainan zoazi nere haurrideri erraiterat zer ikhusi duzun. » Maria Madalena dizipulueri erran zioten : « Jauna ikhusi dut eta horra zer erran dautan. »

87. — Juduen gezurra

Arte hartan, begiratzaletarik zombait hirirat joan ziren eta aphez-nausieri eman

zioten ororen berri. Hauiek zaharrak bildu zituzten, eta batzarra eginik, soldadoeri diru puska bat eman zioten, erranez : « Errazue bazterretan dizipuluak gauaz jin direla eta lo zinaudeztelarik joan dutela. Gobernadorea jakiterat heldu bada, guk balakatu-ko dugu eta estaliko zituztegu. » Soldadoek, dirua harturik, erran bezala egin zuten, eta egungo egunean ere Juduen arteko fama da.

88. — Emmaüseko dizipuluak

Egun hartan berean, bi dizipulu bazoaz- zin Emmaüs-erat, eta elgarrekin mintzo ziren gauza gerthatu berri guziez. Solasean ari zirelarik, Jesus bera heiekilakatu zen eta heiekin bideari lotu. Bainan begiak hetsiak bezala zituzten eta ez zuten ezagutzen. Harek erran zioten : « Zertaz mintzo zirezte hola ? Eta nundik heldu da hain ilhun baitzirezte ? »

Heietarik batek, Kleofas zuen izena, ihardetsi zion : « Jerusalemeko arrotz baxharra abal zira, ez baitakizu zer iragan

den azken egun hautan. » Eta erran zioten : « Zer bada ? » Ihardetsi zuten : « Jesus Nazaretharraz, zeina profeta bat baitzen erranetan bezala egintzetan boteretsua, Jainkoaren eta gizonen aitzinean; eta nola aphez-nausiek eta gure buruzagiek hil-araziduten eta kurutzefikatu. Alta guk uste ginuen bada hura izanen zela Israëlen salbatailea; baina huna ja hiru egun gauza horiek gerthatu direla. Egia erran, gurekilako emazteki batzuek eguna gabe joan dira hil-hobirat, eta haren gorphutza ez kausiturik, jin zaizkigu erranez aingeruak ikhusi dituztela eta hauien arabera bizi dela : gutarik zombait joan dira hobirat, eta denak emaztekiek erran bezala aurkhitu dituzte; baina hura, ez dute ikhusi. »

Jesusek ihardetsi zioten : « Oi zoroak, eta profetek erranen sinesteko hain herabe zirezten bihotzak, *Kristok ez zituena bada horiek pauratu behar, gero bide hortaz bere lorian sartzeko.* » Orduan, Moisesetik hasirik azken profetaraino, chehatu ziozkaten Liburu sainduetan Kristoz erran direnak oro.

Johan ziren herrichkarat hurbildu zirelarik, egin zuen alegia urrunago joaki. Bainan othoiztu zuten geldi zadin, erranez : « Zaude gurekin, ezen berandua da eta jadanik eguna beheratua da », eta Jesus heiekin sartu zen. Mahainerat-eta, ogia hartu zuen, benedikatu, hautsi, eta eskaini zioten. Orduan begiak zabaldu zitzaizkoten eta ezagutu zuten; bainan begietarik itzali zitzaioten. Eta elgarri erraiten zuten : « *Ez zena gure bihotza sutan, bidean mintzatzeari zitzaikularik Liburu sainduak argitzen zauzkigunean ?* ».

Berehala chutiturik, Jerusalemerat itzuli ziren : han hameka apostoluak eta heien lagunak aurkhitu zituzten. Hauiek erran zioten : « Jauna egiazki phiztua da, eta Petriri agertu zaio. » Berek kondatu zuten zer iragan zen bidean, eta nola Jauna ezagutu zuten ogiaren haustetik.

89. — Jesus afaltegian

Dizipuluak hola mintzo ziren bitartean, Jesus aurkhitu zen heien erdian eta erran

zioten : « Bakhea dela zuekin ! Ni niz, ez izi. » Bainan hainbertzetaraino nahasi eta larritu ziren, non izpiritu bat ikhusten zutela uste izan baitzuten. Eta erran zioten : « Zertako nahasten zirezte ? Eta nundik ditutzue bihotzeko gogoeta horiek ? Beha nere esku-oineri; nihaur niz, hazta nezazue eta ikhus. Izpiritu batek ez du haragirik ez hezurrik, eta nik bai, ikhusten duzuen bezala. » Eta irakutsi ziozkaten bere eskuak eta bere oinak.

Bainan bozkarioarekin oraino miretsiak baitzauden, erran zioten : « Ba othe duzue jateko zerbait ? » Eskiani zioten arrain erre pochi bat eta ezti-orraze bat. Heien bichtan janik ,geldikinak hartu eta eman ziozkaten; eta erran zioten : « Horra zer erraiten nautzuen, zuekin nintzenean : Moises baitan, profetetan eta psalmoetan nitaz ezarriak diren guziak behar zirela gerthatu. »

Berriz ere erran zioten : « Bakhea dela zuekin ! Nere Aitak igorri nuen bezala, nik ere igortzen zituztet. Gero, buhatu zuen heien gainerat ziolarik : « *Bekhatuak bar-*

khatuak izanen zaizkote, zuek barkhatuko diozkatzueteneri, eta utziak izanen zaizkote, zuek utziko diozkatzueteneri. »

90. — Thomas

Thomas, hamabietarik bat, ez zen heiekin Jesus etherri zelarik. Bertze dizipuluek erran zioten bada : « Jauna ikhusi dugu. » Bainan ihardetsi zioten : « Ez balinbadut haren eskuetan ikhusten itze seinalerik, eta ez balinbadut erhia itze ziloetan emaiten eta eskua haren sahetsean, ez dut sinetsiko.

Handik zortzian, dizipuluak berriz ere etche hartan baitziren, eta Thomas heiekin, Jesus jin zen atheak hetsiak zirelarik; eta heien erdian emanik, erran zioten : « Bakhea dela zuekin. » Gero erran zion Thomasi : « Emazu zure erhia hementche, eta beha nere eskueri; hurbil-azu zure eskua eta sar-azu nere sahetsean; ez zitela engoitik sinets-gaitz izan, bainan bai fededun. » Thomasek ihardetsi zion : « Nere Jauna eta nere Jainkoa. » Jesusek erran zion : « Tho-

mas, ikhusi duzulakotz, sinetsi duzu. Dohatsu, ez dutenak ikhusi, eta sinetsi dutenak.»

Jesusek bertze hainitz mirakulu egin izan ditu bere dizipuluen aitzinean, liburu huntan ez baitira ezarriak. Bainan hauk izkiriatuak izan dira, sinets dezazuen Jesus dela Kristo, Jainkoaren semea, eta, sinetsirik, bizia ukhan dezazuen haren izenean.

91. — Azken agertzeak

Jesus agertu zen bertze aldi batez Tiberiadeko itsaso bazterrean, eta huna nola. Petri eta Thomas, Zebederen bi semeak eta bertze bi dizipulu elgarrekin ziren. Petrik erran zioten : « Banoa arraintzarat. » Ihardetsi zuten : « Gu ere heldu gira zurekin. » Joan ziren, eta untzian sartu ziren, bainan gau hartan ez zuten deusik hartu.

Goiz alderat, Jesus ur-hegian gerthatu zen; bainan dizipuluek ez zuten ezagutu. Galdegin zioten : « Ez duzue deusik jateko ? » Ihardetsi zioten ezetz, eta harek erran zioten : « Aurdik-azue sarea untziaren

eskuin alderat, eta atchemanen duzue. » Aurdiki zuten beraz, eta ez zezaketen athera, hanbat arrain bildu baitzuten. Berehala Jesusek maite zuen dizipuluak erran zion Petriri : « Jauna da. »

Itsas-bazterrerat-eta, Jesusek erran zioten : « Ekhar-azue orai hartu dituzuen arrainetarik. » Petri untzirat igan zen eta sarea leihorrerat erakarri zuen, ehun eta berrogoi eta hamahiru arrain handiz betherik; eta nahiz hanbat baziren, sarea ez zen urratu. Jesusek erran zioten : « Zathozte jaterat. » Eta jarririk zaudenetarik, ez zitzaion nehor ausartatu nor zen galdatzerat, baitzakiten Jauna zela.

Jan izan zuten ondoan, Jesusek erran zion Petriri : « Simun, Joanesen Semea, maite nuzuia hauiek maite nuten baino gehiago? » Ihardetsi zion : « Bai, Jauna, badakizu maite zitudala. » Jesusek erran zion : « *Bazka zaitzu nere bildotchak.* »

Berriz ere galdegin zion : « Simun, Joanesen semea, maite nuzuia ? » Petrik ihar-

detsi zion : « Bai, Jauna, badakizu maite zitudala. » Jesusek orduan : « *Bazka zaitzu nere achuriak.* »

Eta erran zion hirugarren aldikotz : « Simon, Joanesen semea, maite nuzuia ? » Gaitzitu zitzaion bihotzean Petriri, zeren galdegin zion hirugarren aldikotz maite zuenetz, eta ihardetsi zion : « Jauna, zuk gauza guziak badakizkitzu. badakizu bada maite zitudala. » Jesusek erran zion : « *Bazka zaitzu nere ardiak.* »

SALBATORE

92. — Jesusen zeruratzea

Hameka dizipuluak joan ziren Galilearat, Jesusek erran zioten mendirat.

Orduan Jesus hurbildu zen eta gaizkiak erran ziozkaten heien sinets-gaiztasunaz eta bihotz-gogortasunaz, zeren ez zuten sinetsi phiztu zela, ikhusi zutenen hitzaren gainean. Eta erran zioten : « Eskubide guziak eman izan zaizkit zeruan eta lurrian. *Zoaz-*

te beraz, erakats zaitzue populuak oro, bathaiatzen ditutzuela Aitarean, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean; erakasten diozuetelarik begiratzen nik manatu dauzkitzuetan guziak. Eta huna nun zuekin naitzen mendeez dirauteno. »

Hitz horiek erran-eta, Jesus Jauna zerurat igan zen eta Jainkoaren eskuinean jarria dago. Dizipuluak bazter guzietarat joan ziren predikatzerat, Jauna heiekin lanean ari zela, eta heien hitzari indar emaiten zio-la mirakuluen bidez.

Nihil obstat :

Bajonae die 23a Augusti 1934

A. LARRALDE, CENSOR.

Imprimatur :

Bajonae die 25a Augusti 1934

J. LASSERRE, V. C.



